


ERRIA

ERALDAKETARAKO ALDIZKARI POLITIKOA



13.
zenbakia
2024ko ekaina
erria.eus

ERRIA 13. zenbakia

Azaleko ilustrazioa:
Oier Zuñiga

Argitaratzailea:
Iratzar Fundazioa

Erredakzioa:
Itziar Amunategi
Maialen Arteaga
Gotzon Elizburu
Andoni Olariaga
Maddi Zabalo
Izaro Zinkunegi

Argazkiak:
Foku

Diseinua eta maketazioa:
Grafik

Itzulpenak:
Frantsesa: Txomin Poveda

Ilustrazioak:
Oier Zuñiga

Egoitza:
Zuatzu enpresa parkea,
Easo eraikina 4, behea.
20018 Donostia
tlfnoa: 943 265982

www.eria.eus
eria@eria.eus


twitter: **@eria_eus**
facebook: **www.facebook.com/eria.aldizkaria**
Telegram: **ERRIA**
Instagram: **@eria_aldizkaria**

Erria aldizkaria Iratzar Fundazioarena
eta Sorturena da.

Lege gordailua:
SS-0033-2018

Jabego lizentzia:
CC BY-SA

Babeslea:



“¿Por qué deberían nuestros cuerpos terminar en la piel o incluir, en el mejor de los casos, otros seres encapsulados por la piel?”

Donna Haraway, Manifiesto cyborg



06 EDITORIALA

08 TXIO-TXIOKA 2024

12 ERRIAK EZ DU BARKATUKO

MUGIMENDU ABERTZALEA, JAUZI BERRI BATERAKO PREST IPAR EUSKAL HERRIAN

- 18 **ELKARRIZKETA** "Ipar Euskal Herria Parisen aitzinean ahots bakarrez mintzo delarik, lorpenak izaten dira" Txomin Poveda
- 26 **KRONOGRAMA** Huit moments clés du mouvement abertzale en Labourd, Basse-Navarre et Soule Erria
- 28 **SINADURA** Gazteok Euskal Herriaren alde ekin! Irantzu Idoate Funosas

ERREGIMEN HETEROSEXUALA ARRAKALATZEN DUTEN GORPUTZAK

- 34 **ERREPORTAJEA** Heteroarauaz beste egiten, elkarrekin Erria
- 40 **ELKARRIZKETA** "Es la biología, precisamente, la que pone sobre la mesa una gran diversidad de cuerpos" Mer Gómez
- 44 **SINADURA** Zergatik sentitzen duzun Iñi Etxezarreta
- 48 **ARTIKULUA** Estrategia transmaribolloak: gizon eta emakume klaseen suntsipenerantz Mijo Lizarزابuru eta Uma Ulazia
- 54 **ARTIKULUA** "Lo queer/cuir" o cómo pensar y movilizarnos más allá de las identidades Gracia Trujillo Barbadillo

EUSKAL HERRIA EZ DA TXURIA IZANGO, ALA EZ DA IZANGO

- 58 **SINADURA** Jatorri eta kultur aniztasuna euskal egitasmotik nazionalaren eraikuntzan Xabi Iraola Larraia
- 62 **ERREPORTAJEA + INFOGRAFIA** Euskal Herria migrazioen hazkunde aroan Arkaitz Fullaondo
- 66 **SINADURA** Pribilegioak zalantzan; hegemonia zuriaren marra gorria Julu B. El Outmani
- 68 **SINADURA** Araka ditzagun gure bazterrak Ekhiñe Petriati, Elene Lopetegi eta Ainhoa Olaso
- 72 **ARTIKULUA** Euskara eta kulturartekotasuna udalerritik euskaldunetan. Lizartzako esperientzia Maialen Zuazo eta Maier Ugartemendia

76 APORIA

78 KOMIKIA

82 GOMENDIOAK

Nor(anzko) berriak gorpuzten

Mende zaharrak aztertu, mundu berriak zirriboratu, modu berriak pentsatu, geure buruak eraberritu... XXI. mendeko mugimendu eraldatzaileek ezinbestekoa dute hori guztia egitea, baita gureak ere. Horretarako funtsezko tresna da ideien guda. Iratzar Fundazioak hamar urte bete ditu aurten lan horretan, eta Erria aldizkaria da borroka ideologikorako Iratzarren tresnetako bat, mundu berriak pentsatzen eta zabaltzen saiatzen baikara orri hauetan. Askapen egitasmoa hegemonikoa bilakatzeko helburuari jarraituz, mundua ulertzeko moldeetan eragitea da aurrekoaren helburu nagusia. Errealitatea irakurtzeko ikuspegia, desira eta sentipenak, joera kultural eta sozialak... Errotiko eta egiturazko aldaketak egiteko ezinbestekoa da gizartearen pentsamoldean eragitea.

Borroka ideologikoaren funtsezko helburua funtsezkoa askapen mugimenduaren etengabeko eraberritze politiko eta ideologikoa da, emantzipazio borroka unibertsalekin dialektikan. Bide horretan, mende zahar eta berrietan zapalduetako nazio, bizi proiektu eta gorputzei egin diegu tokia 13. zenbakian. Zapalkuntzei aurre eginez, bestelako mundu bat zirriboratzeko eta noranzko berriak gorpuzten ari diren hiru gai landu ditugu: Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzalea; sistema heteropatriarkalak ezarritako mugetan kabitzen ez diren gorputz eta subjektuen borroka; egungo migrazioa, eta jatorri eta kultur aniztasuna euskal egitasmo nazionalan kokatzeko egin beharreko bidea.

Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzaleak bere bide-orrria gaurkotzeko Bagira prozesua egin du du azken hilabeteotan. Prozesu horren nondik norakoak eta aurrera begirakoak aletu ditu Txomin Poveda Iratzar Fundazioko kideak lehenengo dossierreko elkarrizketan. Horrekin batera, mugimendu horren kronologia eta bertako mugarrak nagusiak ere jaso ditugu. Eta Irantzuko Xuti Gazteko kideak gazte ikuspegitik erreparatu die egungo eta etorkizuneko erronkei.

Gorputzak, identitateak, desirak... sistema heteropatriarkala arrakalatzeko lurraldeak dira horiek ere, azpiratuak diren hein berean. Sexu-genero eraikuntzaren eta gizon-emakume sistema bitarraren arabera eraikitako mundu zaharrean, hazkura eragiten dute bollerek, intersexek, transek... Bestelako mundu berri bat zabaltzen diharduten subjektu eta estrategia politiko horiek jorratu ditugu bigarren dossierrean: Jenofa Berhokoirigoin, Natalia Gardeazabal eta Elene Lopetegik bollerismoa zertan datzan landu dute, eta Uma Ulazia eta Mijo Lizarzaburuk estrategia horretan sakondu. Iñi Etchezarretak, berriz, gizontasunaren [des] eraikuntza izan du hizpide; Mer Gomezek, intersexualitatea; eta Gracia Trujillok, queer teoria.

“Estutzen eta estutzen migrazio legediak, kontinente zaharra irla blindatu bat da ia”, abesten du Anari. Eta kontinente zahar horretan dago Euskal Herria, estaturik ez duen nazio zapaldua, hizkuntza eta kultura gutxituekin. Hortik, eta bere burua berrikusiz heldu behar dio euskal nazio askapen mugimenduak egungo migrazioaren errealitateari, eta jatorri eta kultur aniztasunari. Ekin dio bideari, Xabi Iraola Sortuko kideak hirugarren dossierrean azaldu moduan. Arkaitz Fullaondok egungo migrazioaren errealitatean eta haren nolakotasunean sakondu du. Bilgune Feministako kideek, berriz, askotariko zapalkuntzen arteko elkarreraginari erreparatu diote, dekolonitatean eta antiarrazismoan arreta jarritz. Eta Julu E. O. Balaaskek bizipen eta borroka horri ahotsa jarri dio. Azkenik, UEMAK zubiak eraiki eta kulturarteko harremanak sustatzeko udalerrri euskaldunetarako diseinatutako egitasmoa jaso dugu. On egin!

Dando forma a nuevos horizontes

Explorar viejos siglos, esbozar nuevos mundos, pensar nuevas formas, renovar nuestras mentes... Los movimientos transformadores del siglo XXI [también el nuestro] tienen que hacer necesariamente todo eso. La batalla de las ideas es un instrumento fundamental para ello. Este año, la Fundación Iratzar cumple diez años en esa labor, y una de sus herramientas para la lucha ideológica es la revista Erria, en cuyas páginas tratamos de pensar y difundir nuevos mundos. Aspiramos a que el proyecto de liberación se convierta en hegemónico, con el objetivo de incidir en las maneras de ver el mundo. Visión y lectura de la realidad, deseos y sentimientos, tendencias culturales y sociales... Para realizar cambios radicales y estructurales es imprescindible incidir en la mentalidad de la sociedad.

El objetivo fundamental de la lucha ideológica es la permanente renovación política e ideológica del movimiento de liberación, en dialéctica con las luchas de emancipación universales.

En este sentido, en el número 13 de la revista le hemos dedicado un espacio a las naciones, proyectos de vida y cuerpos oprimidos en los viejos y nuevos siglos. Hemos abordado tres temas que, haciendo frente a las opresiones, están esbozando un mundo diferente y marcando nuevos rumbos: el movimiento abertzale en Iparralde; las luchas de cuerpos y sujetos que no caben en los límites establecidos por el sistema heteropatriarcal; la migración actual y el camino a recorrer para situar la diversidad de orígenes y culturas en el proyecto nacional vasco.

El movimiento abertzale de Iparralde ha llevado a cabo en los últimos meses el proceso Bagira, con el objetivo de actualizar su hoja de ruta. En la entrevista que abre el primer dossier, Txomin Poveda, de la Fundación Iratzar, desgana los pormenores y las perspectivas de futuro de ese proceso. Junto a ello, hemos recogido la cronología y los principales hitos de ese movimiento. Por su parte, Irantzuko Xuti Gazte, analiza los retos actuales y futuros desde una perspectiva juvenil.

Cuerpos, identidades, deseos... son territorios donde se resquebraja el sistema heteropatriarcal en la misma medida en que son subyugados. En el viejo mundo estructurado en base a la construcción sexo-género y al sistema binario hombre-mujer, las personas bollereras, intersex, trans... provocan escozor. Jenofa Berhokoirigoin, Natalia Gardeazabal y Elene Lopetegui exponen en qué consiste el bollerismo, y Uma Ulazia y Mijo Lizarzaburu profundizan en esa estrategia. Iñi Etchezarreta, por su parte, aborda la [de]construcción de las masculinidades, Mer Gómez la intersexualidad y Gracia Trujillo la teoría queer.

«Estrechando y estrechando las leyes migratorias, el viejo continente es casi una isla blindada», canta Anari. Y en ese viejo continente está Euskal Herria, una nación oprimida y sin Estado, con una lengua y una cultura minorizadas. Desde ahí, y revisándose a sí mismo, el movimiento de liberación nacional vasco debe abordar la realidad migratoria actual y la diversidad de orígenes y culturas. Y ya ha iniciado ese camino, tal y como nos lo explica en el tercer dossier Xabi Iraola, miembro de Sortu. Arkaitz Fullaondo profundiza en la realidad migratoria actual y en sus características. Las integrantes de Bilgune Feminista, por su parte, han puesto el foco en la interacción entre las diversas opresiones, centrándose en la decolonialidad y el antirracismo. Y Julu E. O. Balaass ha puesto voz a esa vivencia y esa lucha. Por último, recogemos el proyecto diseñado por UEMA para los municipios euskaldunes para tender puentes y fomentar las relaciones interculturales. ¡Buen provecho!

Donner corps aux nouveaux horizons

Analyser les siècles passés, dessiner les nouveaux mondes, repenser les méthodes, se renouveler... Les mouvements transformateurs du XXIe siècle doivent s'atteler à ces tâches. Le nôtre également. C'est la raison pour laquelle le combat des idées est essentiel. La fondation Iratzar fête dix ans de travail dans ce domaine. La revue Erria fait partie de ses outils pour penser et ouvrir les perspectives vers de nouveaux horizons. Son ambition est de rendre hégémonique le processus de libération, de changer les façons de comprendre le monde, d'observer les réalités, les désirs, les sentiments, les tendances culturelles et sociales... Les transformations fondamentales et structurelles reposent sur une évolution des opinions sociétales.

L'objectif essentiel de la lutte idéologique est de participer au renouvellement politique et idéologique du mouvement de libération, en dialectique avec les luttes universelles d'émancipation. C'est la raison pour laquelle ce 13e numéro est consacré aux nations, aux projets de vie et corps opprimés depuis des siècles jusqu'à nos jours. Nous abordons trois sujets qui tracent les contours d'un nouveau monde et marquent de nouvelles directions face aux dominations : le Mouvement Abertzale du Pays Basque Nord, les luttes des corps et sujets qui s'affranchissent des limites du système hétéropatriarcal ; et le cheminement à réaliser pour positionner la diversité culturelle et d'origines au sein du processus national basque.

Ces derniers mois, le Mouvement Abertzale du Pays Basque Nord a mené le processus Bagira en vue de réactualiser sa feuille de route. Txomin Poveda, membre de la fondation Iratzar, nous détaille les tenants et aboutissants de ce processus ainsi que ses perspectives. Ce premier entretien du dossier est accompagné d'une chronologie reprenant les moments clés du mouvement. Irantzuko Xuti Gazte, apporte son regard de jeune sur ces enjeux actuels et futurs.

Corps, identités, désirs... autant de terrains qui ébrèchent le système hétéropatriarcal tout en y étant aspirés. La construction sexuée et genrée de l'ancien monde reposant sur la binarité homme-femme est bousculée par les trans, intersexes, gouines... Le second dossier est consacré aux stratégies politiques de ces sujets qui ouvrent de nouveaux horizons. Jenofa Berhokoirigoin, Natalia Gardeazabal et Elene Lopetegui font un état des lieux de la lutte gouine ; puis Uma Ulazia et Mijo Lizarzaburu nous en expliquent la stratégie. Enfin, Iñi Etchezarreta évoque la déconstruction masculine, Mer Gomez l'intersexualité et Gracia Trujillo la théorie queer.

Dans ses paroles, Anari chante « À serrer et resserrer encore les loix pour les migrants, le vieux continent est déjà une île blindée ». Au sein de ce vieux continent, le Pays Basque est une nation opprimée sans État dont la culture et la langue sont minorisées. C'est depuis cette perspective que le mouvement de libération nationale devra se renouveler pour intégrer la réalité de la diversité d'origines et de cultures liées aux migrations actuelles. Xabi Iraola, membre de Sortu, présente cette perspective au sein du troisième dossier. Arkaitz Fullaondo revient plus en détail sur la réalité des migrations actuelles. Les membres du Bilgune Feminista apportent un regard croisé, décolonial et antiraciste, pour aborder les incidences de ces oppressions multiples. Julu E. O. Balaasse offre sa voix pour livrer son expérience à cette lutte. Enfin, nous présentons le projet du réseau UEMA visant à bâtir des ponts et renforcer les relations interculturales des municipalités bascophones. Bonne lecture!

TXIO-TXIOKA 2024

Atal honetan azken hilabeteetan gertatutako enolabaiteko bilduma bat aurkituko duzu, motzean.

Argi eta garbi atalean txiolariak albisteei egindako kritikak eta iruzkin politikoak daude bilduta. **Gutarrak** atalean txiolariak goraipatu dituzten borrokak, mobilizazioak eta pertsonak. **[Barrez] lehertu** atalean barrez lehertzeko umore gordina.

Argi eta garbi

Malcolm IXa @idetzabaldub

Espainiako prentsak @ehbildu-ren emaitza historikoak nabarmendu ditu, begiratu dezagun perspektibaz.



Joel Martin @Fuegoalregimen

Podemos ha perdido porque tiene a todas las cloacas en contra no como el BNG que solo les han llamado proetarras que financian a Hamas.

mario zubiaga @zuribia

La historia se repite como farsa, pero las farsas no dejan de ser peligrosas. La "máquina del fango" es más civilizada que la "máquina de plomo" franquista, pero los discursos de la extrema derecha son a menudo precursores de horrores futuros. #antifascismo



Susan Sarandon @SusanSarandon

Free Palestine



JoxemieI @JoxemieI

Zorionak EAJri alderdi bozkatuena baita Euskal Herri osoan.

Euskal Herri osoan Araban, Gipuzkoan, Lapurdin, Nafarroa Beherean, Nafarroa Garaian eta Zuberoan izan ezik.

Kizkitza Gil de San Vicente @KizkitzaGildeSV

Borroka kolektibo baten emaitza da hau eta herri gisako garaipena.

Euskal esparru sozioekonomia eraikitze bidean urrats kualitatiboak zailak dira.

#INDarra

naiz: @naiz_info - 6d
Aprobada la reforma que recupera la prevalencia de los convenios vascos
naiz.eus/eu/info/notici...



Jon Maia Soria @maia_jon

Gernika, Palestina.



Susanna G.P. @Susannagp

Pello Otxandiano diciendo que asumen la responsabilidad de representar a los 50.000 votos de izquierda que han quedado fuera del parlamento. Que elegancia, joer.

Ruben Pascual @GARA_rpascual

Igual lo suyo hubiera sido entrecomillar «noticias», pero qué sabré yo.

Translate post

Noticias "falsas" y el acoso de la oposición, el cóctel que llevó a Sánchez al límite

Gontzal Carrasco @gontz_trkx

Hauteskunde hauek zerbait erakutsi badute da Gaztelatik iritsi ziren langileen seme-alaba eta bilobak erabat euskaldundu gara. Carrasco, Martínez edo Del Valle abizena daukagu, baina ezker abertzalekoak gara, eta oso-oso harro gaude langile izateaz eta herri honetaz.

Markel @markeltxumbo

Okupazioa ez da arazo bat.

Arazoa etxebizitza eskubidea bermatzeko eskura dituzten eskumenak erabili ez eta funts putreen zein jabe handien interesen aldeko politikak bultzatzea da. Etxebizitza merkantzia izaten jarraitzea ahalbidetzen duzuenak zarete.

Ez desbideratu eztabaida.

Joseba Díez Antxustegi @jose... - 17 mar.
El PNV propone un cambio legal para desalojar okupas en 48 horas.

elcorreo.com/politica/pnv-p...

Irantzu Varela @IrantzuVarela

A mi me flipa que penséis que lo del acoso judicial empezó con Pedro Sanchez o con Podemos. Egunkaria? Altsasu? Anna Gabriel? Gente torturada, encarcelada o exiliada por montajes policiales/judiciales hace décadas y os entra la empatía ahora?

Aintzz @katapurtxintxe

Deusek eragingo ez balu bezala, ezta?

Lugar de nacimiento. El lugar de nacimiento determina el conocimiento de euskera de la población. Así el 74,3% de las personas nacidas en la zona vascofona son vascohablantes mientras que esta cifra se sitúa en el 2,9% para las personas nacidas en la zona no vascofona.

Euskarabidea @euskarabidea... - 17 mai.

El 15'1% de la población navarra es vascohablante, y el 11'6% es vascohablante receptora, según @nastat_na

Euskarabidea seguirá trabajando por mejor...

lorea agirre @katujaja

"Menperakuntza gertaeren historia eta memoria ezagutzea funtsezkoa da, ze kapitalismoak gertaera isolatu bezala agertu nahi dizkigu, menperakuntzaren kontra antolatuta ez gaituzten". Angela Davis, beti argi, zoli; beti hemen eta orain; beti zentzuz janzten bidea.

@mmuxika



iker bizkar @GARA_ikerbizkar

Un candidato plenamente satisfecho de su resultado, que se sintiera vencedor inapelable, feliz y contento, no se habría saltado la cortesía parlamentaria y se habría reunido con el segundo sin dilación. De hecho, buscaría esa foto como símbolo de su victoria. No es el caso.

EH Bai @EHBai

Aujourd'hui, nous avons eu deux représentants du FLNKS au Pays Basque nord.

Lors de cette visite:

- Nous avons communiqué notre lecture.
- Nous avons donné la parole à Mickaël Forest et David Wanado pour nous informer sur la situation en Kanaky.


Traducir post



Miquel Ramos @MiquelR

No hay ninguna contradicción entre ser un neonazi o un fascista y alinearte con el proyecto sionista. Hoy, todas las extremas derechas están defendiendo a Israel y el genocidio que está cometiendo, creyendo que así esquivan su reputación de antisemitas.

Translate post



Gutarrak

Imanol Nieto
@ImanolNietoCasa

Hoy se homenajea en #Barakaldo a una leyenda viva del independentismo de izquierdas de nuestro país. Uno de esos imprescindibles que diría Bertolt Brecht. Un ejemplo de lucha, compromiso y coherencia para todos y todas las que militamos en la izquierda independentista.



AEK
@AEK_eus

Harrotasunez, 23. KORRIKA Irundik Baionarat iritsi da Lekuko barruko mezu sekretuaren idazlea: Garazi Arrula Ruiz korrika.eus/eu/bloga/item/... #HarroHerri #23KORRIKA #KORRIKA



Michelle O'Neill
@moneillsf

This is a day of historic change.

I am determined to deliver for everyone as a First Minister for all.



Euskal Mendizale Federazioa EMF-FVM
@Emffvm

Kaixo, Euskal Herria! Gaur 100 urte bete ditugu. Gora euskal mendizaletasuna!

#BetidanikBetiko #mendiurrena #100Urte

@Emffvm @MENDINAVARRA



LAB SINDIKATUA
@LABsindikatu

Gaur duela 47 urte, LABek eratze akta eta estatutuak aurkeztu zituen, eta hiru urte lehenago hasitako sorrera prozesua burutu.

"Mugimendu berri bat ari da sortzen Euskadiko langileen artean. Eta konturatzen ari da bi borroka azkenean bat direla".

#Artefaktua #Zabaltzen



SARE_Konponbiderako #Giltzak
@sare_herritarra

Queremos mostrar nuestro apoyo a la actriz Itziar Ituño ante la enésima campaña de criminalización que esta sufriendo desde el sábado.

Cojamos las llaves en nuestras manos y sigamos avanzando en el camino hacia la resolución. Konponbiderako #Giltzak



Olaso Dorrea Fundazioa
@DorreaOlaso

Jon Anza

15 urte Egia, Justizia eta Erreparazio zain!



axi (poeta torturado)
@axianduaga

neru ustez euskal herriko blue monday ofiziala izan bihako zan gaur, korrika osteko astelehena

Arkaitz Rodríguez Torres
@arkarodriguez

Bakearen etsaiek jakin dezatela, behin eta berriz ahalegindu arren, ez gaituztela gure bidetik milimetro bakar bat ere mugituko.

Oztopoak oztopo, herri honek lortuko ditu bakea eta askatasuna.

Berria.eus @berria · 4d
Espainiako Auzitegi Nazionalako Fiskalak espetxe zigorrak eskatu ditu Oihana Garmendia, Haimar Altuna, Oihana San Vicente, Kai Saez de Egliz, Antton Lopez Ruiz eta Felipe San Epifanioren kontra, 201...

Pello Otxandiano Kanpo
@PelloOtxandiano



(Barrez) lehertu

Yonson de la Cierva
@jormanceles

Me parece bien que Putin reclame Alaska como suya, pero por favor incluyan a Mario Vaquerizo en el trato.

error
@hazlodenueno

- Joder, qué mal día llevo.

Mi colega socialista:



irati
@irati

No se puede ser más sinvergüenza que este sinvergüenza. Ni fingiendo no saber consigue parecer inocente. Iker, coño, que has hablado en tu programa de temponautas, horrañes, la cueva oficial del SIDA y la murcielaguina, colega. Que tienes un criptozoólogo de cabecera, no me jodas

Iker Jiménez @navedelmisterio · 30/4/24
Os confieso estar fascinado con lo que pasa. La pregunta que os lanzo es ¿cómo se distingue un medio respetable de un pseudomedio? Cosas concretas; ¿La estructura que hay detrás? ¿El alcance? ¿Ideología? ¿Querellas ganadas o perdidas? ¿Titulación del director? ¿Audi...

Guerra en la Universidad
@GuerraenlaU

En el Cuerno de África es normal que la gente hable un par de lenguas cuchíticas, una semítica y una indoeuropea. Y no pasa nada.



Ane Lindane
@AneLindane

12:15 del mediodía de un miércoles en la cisterna del váter de una cafetería cerca de la plaza Elíptica en Bilbao. ETA habrá dejado las armas, pero en Euskal Herria sigue habiendo tiros.



Antton Telleria
@antton_telleria



Berria.eus @berria · 1d
Ertzaizak Joxe Mari Agirretxe 'Porrotx'-en aurkako ikerketa bat zabaldu du, biktimen elkarte batzuen salaketa baten ondorioz. EH Bilduk ikerketa horren berri emateko eskatu dio Erkorekari...

Lander
@Landerlandia

El presidente del PNV entrevistado en Radio Euskadi, le preguntan por las propuestas de Pello Otxandiano y por los últimos acuerdos alcanzados por EH Bildu en Gasteiz... Su respuesta: el comodín de la ETA para exigir no sé qué a la izquierda abertzale.

tócate otra, Ortuzar.



Lo Mejor de Twitland
@MejoresTwits

¿Si Will Smith viaja al pasado, sería Was Smith?



Ana @benitadinanab-32h
Están en 2º de la OSO



euskal herria fumar
@euskadifumar



ERRIAK EZ DU BARKATUKO



FRAMINGA, NAZIONALISMO BANALA ETA NAZIO IKUSPEGI FALTA. ZEINENTZAT DA INTERESEKOA GERTAERA HAU? NOREN ERREGINA DA? NORK ERABAKITA?



APIRILAREN 22KO DEIAKO AZALA. EAJ GARAILA ABSOLUTUA, EH BILDUK ORDEA «VE FRUSTRADA SU INTENTO DE 'SORPASSO'». MILAKA BOTO GALDU DITU ETA 4 PARLAMENTARI GUTXIAGO DITU. EH BILDUK MILAKA BOTO IGO ETA 6 PARLAMENTARI GEHIAGO, AULKIETAN PARRA. GARAIPENAREN ERRELATO BITXIA EAJRENA. PRADALESEN IRRIBARREA EZ AL DAGO TENTSIONATUEGIA?

SEGURTASUN FALTA, HERRITARREN ETXE "OKUPATUAK", POBRE ETA ETORKIN DELINKUENTEAK... EUSKAL HERRIAN OKUPAZIOAK BETI IZAN DU AURKAKO ZENTZUA, HAIN ZUZEN ERE, INOR ETXEBIZITZARIK GABE EZ UZTEAREN FILOSOFIATIK ARDAZTU DA EUSKAL HERRIKO OKUPAZIO MUGIMENDUA, GUNE AUTOGESTIONATU, GAZTETXE ETA KULTURGUNEEN BUELTAN. ETA ZER NOLAKO KASUALITATEA, SEGURTASUN FALTAREN KEZKAK NABARMEN EGITEN DU GORA HAUTESKUNDE KANPAINETAN. ZEINEK EROSI DIO MARKOA ESKUIN MUTURRARI?



ERRIAK EZ DU BARKATUKO

EL CORREO

La falta de médicos llevará a Osakidetza a reducir horarios en los centros de salud

Para compensarlo potenciará los PAC, que asumirán nuevas funciones como la tramitación de las bajas laborales

EL CORREO

EL CORREO

Portada > Álava > Araba

Y tanto que es cara la cacatúa

COSAS VEREDAS · El futuro de Euskadi pasa por atraer talento y mano de obra de fuera. Poner muros idiomáticos hará que se vayan a otros sitios

NAIZ

naiz:

EU

Info

2024 API. 08 - 14:13h

Pradales: «Tenemos que curar Osakidetza, porque Osakidetza nos cuida y nos cura»

ELDIARIO.ES

Pradales plantea "cuidar" Osakidetza y a sus profesionales: "La pandemia nos ha hecho daño y nos ha dejado heridas" 2024

El despido de 4.000 sanitarias en octubre hunde al País Vasco en una sexta ola descontrolada 2021

NOSKI, OSAKIDETZAREN GAINBEHERA FENOMENO METERELOGIKOA DA, ERANTZULERIK EZ DUENA ETA PANDEMIAREN ONDORIO ZUZENA DA. ARE GEHIAGO, MEDIKVEN ETA OSASUN LAGILEEN ERROA DA, OSAKIDETZATIK ALDE EGITEN BAITUTE. GAINERA, ONAK DIREN MEDIKUEI EVSKARA JAKITEA EXIJITZEN BALDIN BADIEGU, NOLA EZ DUTE BA ALDE EGINGO? NAHIAGO DITUGU MEDIKU ONAK, MEDIKU EVSKALDUNAK BAINO (MEDIKU ONAK ETA EVSKALDUNAK EZ DIRA EXISTITZEN.) BERAZ, JUSTIFIKATUTA DAUDE MEDIKU FALTAK ETA HORREK ERAGITEN DITUVEN ORDU MURRIZKETAK. SAGARDUIK ESAN BEZALA, ALDAKETA KULTURALERA OHITZEA DAGOKIGU.

DEIA

ACTUALIDAD > ELECCIONES EN EUSKADI

Otxandiano y su oscuro secreto a voces

El día en que agredían a Imanol Pradales, el candidato de EH Bildu había rechazado calificar de terrorista a ETA, ratificando un relato acomplejado de la violencia

EZ BURU ETA EZ BUZTAN. ZERIKUSIRIK EZ DUTEN BI GERTAEREN KAUSA-ONDORIO LOTURA INTERESATUA, INPLIZITUKI IRAKURLEAREN IMAGINARIOAN ERASOAREN EGILEA EH BILDU DENAREN IDEIA SARTZEKO, EH BILDU ETA OTXANDIANO BIOLENTOAK DIRENAREN FRAMINGA ELIKATZEKO. PRADALESEN AURKAKO ERASOA, ETA, BIOLENTZIA... DENA ENTSALADA BEREAN, ZERGATIK EZ?

EL DIARIO VASCO

Esta es la posición del acento vasco entre los que más atraen a la hora de conocerse

Un estudio revela qué acentos de España son los considerados como más sexys

EL DIARIO VASCO

El Diario Vasco @diariovasco

Follow

El acento vasco, uno de los menos atractivos para ligar

Translate post



diariovasco.com

El acento vasco, uno de los menos atractivos para ligar | El Diario Vasco

SEGURU ZUK ERE HORREGATIK EZ DUZULA LIGATZEN. EZ DUZU INOIZ PENTSATU ARRAZOA EVSKARA ZELA? HOBE ZENUKE GAZTELERAZ HITZ EGIN, FROGATUTA DAGO GEHIAGO LIGATZEN DELA. ADITZAILA ONARI, HITZ GUTXI.

ETORKINAK LANA KENTZERA DATOZENAREN PARADIGMA. NOSKI, HEMEN ESKULAN MERKEA INORK EZ DUENEZ NAHI, HORREK MIGRAZIOA ERAKARTZEN DU, EZTA? EL CORREO ESKUIN MUTURRAREN INBASIOAREN MARKOA HEDATZEN.

EL CORREO

La falta de mano de obra duplica en diez años la contratación de extranjeros en Gipuzkoa

Es el territorio vasco donde más crece la afiliación de trabajadores foráneos desde 2014, aunque de media ganan 13.000 euros menos que un autóctono

IMANOL LIZASOAIN

SAN SEBASTIAN. Los números demuestran que el mercado laboral sigue requiriendo mano de obra extranjera para cubrir los puestos de trabajo que se generan. Así, Gipuzkoa ha doblado la contratación de trabajadores ex-

tranjeros en la última década, y es además el territorio vasco donde más ha crecido la afiliación de empleados foráneos. El territorio cerró el pasado abril con una media de 32.394 cotizantes de otros países -a tan sólo 23 de su récord histórico-, frente a los 15.880 del mismo mes de 2014,

lo que se traduce en un importante alza del 104%. Alas registra un incremento del 98% y Biskaila del 97%. En el caso del País Vasco, la contratación ha subido un 100%, y en abril cerró con 93.430 cotizantes, rebasando así por primera vez la barrera de los 93.000. Unas cifras que

llegan en pleno debate alimentado esta semana por un informe elaborado por ET que revela que Euzkadi necesitará añadir cerca de 10.000 profesionales foráneos cada año durante la próxima década para cubrir el déficit de profesionales. La inmigración se ha convertido en una de las princi-

MUGIMENDU ABERTZALEA, JAUZI BERRI BATERAKO PREST IPAR EUSKAL HERRIAN

60 urteko borroka ibilbidea betea du mugimendu abertzaleak Ipar Euskal Herrian. 1963an Itsasun ospatu zen Aberri Egunean ia hutsetik abiatu zen mugimendua, egun esparru askotan antolatzen den mugimendu bizia da eta bigarren indar politikoa hiru lurraldeetan. Esparru instituzionalean, 2017an martxan jarritako Euskal Elkargoa inflexio puntu garrantzitsua izan da, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa autoeraketa fasean bete-betean sartu baitu. Azken hamarkadetan, Batera plataformaren bueltan eta Aieteko bide-orriaren gerizpean artikulatutako gehiengo zabalek urrats esanguratsuak egiteko bidea ireki dute. Burujabetzan jauzi berriak egiteko tenorea iritsi da eta horretarako bi urtez Bagira hausnarketa prozesua egin du mugimendu abertzaleak, analisiak eta erronkak bateratuta, indar betez ekiteko.

Dosier honetan, Txomin Povedak begirada zabalez, datozen erronkei begiratu die lehenik. Bestetik, mugimendu abertzalearen 60 urteotako inflexio puntu nagusiak bildu ditugu eta azkenik, Irantzu Idoate gazteriak egin beharreko ekarpenaz mintzo da.

**“IPAR EUSKAL HERRIA
PARISEN AITZINEAN AHOTS
BAKARREZ MINTZO DELARIK,
LORPENAK IZATEN DIRA”**

ELKARRIZKETA
Txomin Poveda

Mikel Irastorza
Argazkiak: FOKU





Txomin Poveda Iratzar Fundazioko kidea buru-belarri aritu da Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzaleak egin duen Bagira prozesuaren koordinazio lanetan. 2022ko abenduan abiatu, aurtengo Aberri Egunean bukatutzat eman dute sei hamarkadetan lehen aldiz egin den ariketa kolektiboa. Transmisio historikoaren lanketa egin dute mintzaldien bidez, inkesta bati esker 1.500 pertsonen iritziak bildu dituzte oinarri militante eta sozialak zer pentsatzen duen jakiteko, eztabaida momentuak antolatu dituzte eta baita hiru mobilizazio nagusi ere, Itsasu eta Uztaritzeko Aberri Eguna eta Xuti Gazte dinamikarekin batera, Hazparnen iragan zen Gazte Eguna. Finean, sektore eta eragile ezberdinetako militanteen arteko ikuspegiak eta gogoetak trukatu dituzte, helburu nagusi batekin: ondoko hamarkadari begira mugimendu abertzalearen erronka amankomunak adostea. Horren emaitza izan da `Herri Bidea`, hemendik goiti iparrorratz gisa izanen duten bide-orria.

“Uste dugu eraldaketa prozesua ezkerreko abertzaleen eskutik heldu dela eta apaltasunetik, lidergo hori hartzeko prest izan behar dela”

‘Herri Bidea’ dokumentuan mugimendu abertzaleak ondoko urteetan eskalaz aldatu behar duela nabarmentzen duzue. Horrekin, zer erran nahi da?

Zerotik abiatu zen Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzalea gaur egun iritsi da bigarren indar politikoa izatera lurraldean. Badakigu politiko-instituzionalki bigarren indarra garela, ezkerrean lehen eta abertzale mailan ere. Gure aitzinean bada zentro-eskuin frantsesa eta horrek du gehiengoa oraindik ere. Beraz, erronka da lehen indarra bilakatzea. Eraldaketa planteatzen duten indarren artean lehen indarra izanki, uste dugu eraldaketa prozesua ezkerreko abertzaleen eskutik heldu dela eta apaltasunetik, lidergo hori hartzeko prest izan behar dela.

Maila horretara iristeko, esparru guzietatik eragin behar dugu, bai arlo instituzionaletik, sindikaletik, kultur arlotik, ekonomikotik... Horrek suposatzen du gure jendarte proiektua eskaini behar diogula biztanleria osoari.

Eskalaz aldatzea ere bada ideiak jendartean hegemoniko bilakatzea. Erronka baita gure ideiak ahalik eta gehien zabaltzea eta errotzea. Azken urteetan hainbat arazo konkretuei erantzuteko gai izan da mugimendu abertzalea eta horrelako bideei esker hainbat jende hurbildu da.

Ezkerreko abertzaletasunak urrats handiak egin ditu azken hamarkadetan, baina oraindik orain urrun da gehiengo politiko bat izatetik hiru lurraldeetan. Zer aukera izan ditzake ondoko urteetan?

Gehiengo batetik urrun gara, baina hazkundera azeleratzen ari da. Bada esperantza, baina ikusi behar da azelerazio horren garapena zein izanen den. Azeleratzeko, `Herri Bideak` planteatzen duena da azken hamarkadetan jarraitu den estrategia baliatzea, uste baitugu bide horrek hainbat fruitu ekarri dituela. Bereziki borroka sektorialetatik herritarrek dituzten arazoei erantzunez eta hori herri agenda batera eramanez, biztanleriaren sektore zabalagoak hunkitzeko. Inkestan ikusi dugu hori zela gure indargune handiena, baina baita gure ahulunea ere. Beraz, ondoko hamarkadako estrategiaren ardatzetako bat izanen da sektore zabal horiek gureganatzea.

Politikoki ezingo dugu irabazi sozialki irabazten ez duguna. Ezkerreko abertzaleek badute hazkunde elektoral garrantzitsu bat preseski atzean badagoelako mugimendu bat, ekosistema oso bat, ber norabidean ari dena eta biziki aktibo dena. Horrek badu itzulpen bat hitzordu elektoraletan eta funtsean, hor bada bertute handiko zirkulu bat.

Demografiaren hazkundera nabarmentzeko moduko fenomenoak da Ipar Euskal Herrian. Gai hori ere aztertu duzue Bagira prozesuan, kontuan harturik bereziki Frantziar Estatutik heldu direla pertsona horiek. Hego Euskal Herriarekin alderatuta, tendentzia eta ezaugarri ezberdinak dira. Nola aurre egin erronka horri?

Urtez guziz lurraldean 12.000 pertsona sartzen dira eta 9.000 ateratzen dira. Horrek erran nahi du urtero hiru mila biztanle berri instalatzen direla. Errealitate horrek erronka handi bat sortzen du maila guzietan, izan etxebizitzaren arloan, hizkuntzan, kulturean, nortasunean... Gainera, instalatzea bereziki kontzentratua da kostaldean edo hiriguneetan, barnealdean biztanleria galtzen segitzen den bitartean. Ez da erronka berria baina lortu behar dugu jende hori ere gure proiektuan integratzea. Eta horretarako, lurralde eta jendarte eskaintza bat beharrezkoa da.

Euskal Hirigune Elkargoaren sorreraren ondotik, Ipar Euskal Herrian gero eta gehiago entzuten dira aitortza instituzionalean fase berri bat irekitzeari buruzko ahotsak. Mugimendu abertzaleak bere egin du erronka hori. Zergatik fase berri bat, nora iristeko?

Mugimendu abertzalearentzat biziki inportantea zen instituzionalki egituratzen hasteko etapa lortzea. Ipar Euskal Herria aintzat hartzen duen lehen instituzioa lortu du, 30 urteko borroka baten ondotik. Zazpi urteren ondotik, ikusten dugu tresna hori biziki mugatua dela. Euskal Hirigune Elkargoa funtsean mankomunitate bat da, aurrekontu biziki apala du, konpetentzia mugatuak ditu eta demokraziaren ikuspegitik ere muga handiak ditu. Herritarrek ez dute zuzenki

bozkatzeko hauteskunde bidez. Gisa berean, lurraldeen arteko orekak zaintzeko zailtasunak ikusten ditugu. Funtsean, ez du gaitasun politikorik eta ekonomikorik gaur egun Ipar Euskal Herriak eta bere jendarteak dituzten erronkei aurre egiteko.

Aldiz, argi ikusten dugu lurraldean eta hautetsien aldetik badela borondate politiko bat, baina tresna bera mugatua izanik, egoera honetan ez gara urrunago joaten ahal. Iristen ari gara momentu batera non beste instituzio bat lortzeko salto bat eman behar den. Beste instituzio bat

eskumen gehiago ukanen dituen egungo erronka handiei erantzuteko arlo ezberdinetan. Eta baita ere, konpetentzia fiskalak ukanen dituen eta hurbiltasun handiagoa izan duen herritarrenganako. Bozka zuzena beharko litzateke eta funtzionamendu demokratikoago batean sakontzeko aukera emanen luke instituzio berri horrek. Abertzaleontzat, burujabetza eta botere gehiago lortzea da erronka.

Iraganean, estatus bereziko Lurralde Kolektibitatearen alde kontsentsu handi bat lortu zen. Baldintza nahikorik ikusten duzu, gehiago bat osatzeko aldarrikapen berri baten inguruan? Fase berri bat irabazteko zeintzuk izan daitezke gako nagusiak?

Nire ustez, baldintzak egon daitezke eta mugimendu abertzalearen funtzioa izan duen baldintzak sakontzea eta aukera berriak irekitzea. Helburua izan behar da herri mobilizazio zabal bat sortzea eta erran bezala, gehiago bat lortzea aldaketaren alde. Iraganeko errezeta baliagarria da, gaurko egoera kontuan hartuz betiere. Gehiago bat osatu behar da beste indar politikoekin, baina baita gehiago sozial bat ere. Bi bloke horiek elkarrekin aritu behar dira Frantziar Estatuaren aitzinean presioa egiteko eta ondoko

etapa horretan murgiltzea lortzeko. Iraganean hori izan zen gakoa eta pentsatzen dugu hori dela egun ere jarraitu behar dugun bidea. Bagira prozesuan ikusi dugu Batera bezalako herri plataforma zabal bat berriz muntatzea ezinbestekoa dela, ber norabide horretan lurraldean diren borroka sektorial eta transbertsal ezberdinak artikulatzeko.

‘Herri Bidean’ azken hamarkadan gatazkaren ondorioen konponbide prozesuan eraman den lan eskemak irakaspenak eskaintzen dituela nabarmentzen duzue.

Konponbide prozesuan eta aitortza instituzionalaren borrokan erabili diren eskemak antzekoak dira. Azken batean, bada gehiengo sozial eta politiko bat. Adostasunak eraikitzen dira ezberdinen artean, ez bakarrik mugimendu abertzaleko kideen artean, baizik eta herri gisa. Ipar Euskal Herria Parisen aitzinean ahots bakar batez mintzo delarik, lorpenak izaten dira.

Mugimendu abertzalea zabaltzea eta etapa instituzional berria kausitzea izanik bi erronka nagusietarikoak, 2026an iraganen diren herri hauteskundeak eta Euskal Elkargoaren osaketa berriak zer aitzinamendu ekarri behar lukete bi maila horietan?

Herri hauteskundeak, garrantzia handieneko hitzorduak izan dira beti abertzaleontzat. Elkargoaren sorrerak premia hori areagotu du. Ondokoetan, bi helburu nagusi ukanen ditugu.

Lehenik, orain arteko herriko etxeak atxiki eta gehiagotan boterera iritsi beharko ginateke, botoen emaitzak azkartuz. Elkargoan ere eragin gehiago ukan beharko genuke. Gure jendarte proiektuan jauzi bat emateko baldintzak hor dira. Mugimendu abertzalea zabaltzen ari da eta ondorioz, botere gune guztietan urrats horiek islatzea erronka bat da.

“Ezkerreko abertzaleek badute hazkundera elektoral garrantzitsu bat preseski atzean badagoelako mugimendu bat”

“Irsten ari gara momentu batera non beste instituzio bat lortzeko salto bat eman behar den”



“Bagira prozesuan ikusi dugu Batera bezalako herri plataforma zabal bat berriz muntatzea ezinbestekoa dela”

“Elkarlan eskemak asmatu beharko dira herri gisa aritzeko”

Beste helburu nagusia, herri eta Elkargoko hauteskundeetatik, aldaketa instituzionalaren aldeko gehiengo transbertsal batekin ateratzea izanen litzateke. Elektoralki hazten bagara ere, soilik gure indarrekin kontatuz, oraindik gehiengorik ukanen ez dugula aurreikus dezakegu. Elkarlan eskemak asmatu beharko dira Herri gisa aritzeko. Eragin-gaitasun osoa mobilizatu beharko dugu hauteskunde kanpaina markatzeko aitortzaren gaiarekin. Hauteskunde horiek urtetarako aukerak zabaldu edo hets ditzaketelako. Askok jakatuko da 2026an.

Nazio ikuspegia indartzearen garrantzia azpimarratzen du Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzaleak, noiz eta ezkerreko independentismoa Euskal Herri osoan indartzen ari denean. Zer hutsune eta aukera ikusten dituzu arlo horretan?

Egin dugun inkestan eta izan ditugun eztabaida momentuetan, Ipar Euskal Herriko militanteek faltan sumatzen dute Euskal Herri mailan harreman handiagoak izatea. Hiru lurraldeetako mugimendua ez da sekula hain azkarra izan eta gauza bera erraten ahal dugu Hego Euskal Herriari buruz. Lehen aldia da historian hain azkarrak garela Ipar zein Hego Euskal Herrian. Momentua heldu zaigu berriz Euskal Herri mailan aritzeko. Arlo ezberdinetan izan behar luke. Erraterako, esparru politiko-instituzionalean, hiru instituzioen artean elkarlana sendotzeko edota hautetsien arteko harremanak garatzeko eta saretzeko.

Baina gisa berean, mugimendu abertzaleko eragileen artean Euskal Herri mailan elkarrekin

gehiago aritzeko beharra ikusten dugu. Eta konkretuki, tresna batzuk eta alternatibak eraikitzeko. Militanteek gero eta gehiago ikusten dute, biztanleek dituzten arazoei eta beharrei aterabideak emateko Euskal Herriko eskala egokia dela. Arlo ezberdinetan izan daiteke, hots, energia mailan, ekonomian, laborantzan, hizkuntzan edota kulturaren.

Errealitate bat da Frantziar Estatuko erreferentzia handia dela Ipar Euskal Herrian, baina aldi berean, egungo krisi egoeran, atxikimenduaren ahultze bat izan daiteke. Hori aukera izan daiteke Euskal Herriko eskala indartzeko?

Hori da `Herri Bidean´ egiten dugun egoeraren azterketa. Hainbat faktorerengatik eta burutzen dituen zapalkuntza ezberdinegatik, Frantziar Estatuak galdu du frantses nazioan jendea integratzeko gaitasuna. Indartzen ari baita Estatuak jendeari ongizaterik ekartzen ez dionaren ideia eta aldiz, toki mailatik etor daitezkeela ongizate horretarako bideak. Hemen, hori, Euskal Herriko eskala da. Horri esker mugimendu abertzalean jende gehiago integratzea lortzen dugula erranen nuke, baita kanpotik etorritako jende hori ere.

Egun, nazio mailako dinamikari begira aro berri baten aitzinean egon gaitzkeela uste duzu?

Nire ustez kontua ez da aro berri baten aitzinean egoten ahal garela. Aro berri batean gaude jada. Momentu batean gaude, non Ipar zein Hego Euskal Herrian ezkerreko abertzaleak kokatuak diren bigarren posizioetan, lehen posizioetan lehiatzeko

“Lehen aldia da historian hain azkarrak garela Ipar zein Hego Euskal Herrian. Momentua heldu zaigu berriz Euskal Herri mailan aritzeko”

“Haizea alde dugu, ezkerreko abertzaleak garelako Euskal Herri osoan hazten ari garen sektore politikoa”

aukerekin ere, babes sozial izugarriarekin, alternatiba indarrak irudikatzen eta eraldaketa prozesuak bultzatzen. Bestalde, gatazkaren ondorioen konponbide prozesuak etapa bat pasa du eta horrek aldaketa handia ekartzen du, oraindik bide garrantzitsua egitekoa bada ere. Mehatxu globalek herrien burujabetza beharra areagotu eta Euskal Herrian jendarte libre eta aurrerakoi bat eratzeko pertinentzia sakontzen dute. Alde horretatik, nire ustez, haizea alde dugu, ezkerreko abertzaleak garelako Euskal Herri osoan hazten ari garen sektore politikoa. Beraz, aro berri batean gaude, hasteko, Ipar Euskal Herrian ez dugulako sekula halako baldintzarik izan. Horregatik, gure zeregina bada baldintza horiek ongi baliatzea ahalik eta urrunen joateko.

HUIT MOMENTS CLÉS DU MOUVEMENT ABERTZALE EN LABOURD, BASSE-NAVARRE ET SOULE

ERRIA

Photos: Encyclopedie Euskadi ta Askatasuna et FOKU

Naissance du Mouvement Abertzale, 1963

Le Mouvement Abertzale contemporain débute à la création d'Enbata. La stèle installée à Itsasu deviendra par la suite un symbole historique. La répression franquiste à l'encontre d'ETA pousse des centaines de militant·e·s à s'installer dans les trois provinces. L'influence des réfugié·e·s sera considérable dans les premiers moments du Mouvement Abertzale.



Guerre sale, la décennie 1980

Les attentats du GAL marquent des années sombres au Pays Basque Nord. La répression de l'État s'intensifie brutalement avec les premières extraditions en 1983, la rafle de 1987 et les expulsions massives. La répression s'abattra également durement contre IK.

Lizarra-Garazi, 1998

La période de Lizarra-Garazi apporta un changement de paradigme au sein du Mouvement Abertzale, et au-delà, en amenant une vision à l'échelle de l'ensemble du Pays Basque. Les organisations et les dynamiques nationales se créent et les liens se renforcent. La fin du processus divisera le Mouvement Abertzale durablement au cours de toute la décennie suivante.

La création d'EH Bai, 2007

Lors des législatives de 2007, les abertzale de gauche d'AB, Batasuna et EA se présentent ensemble au sein de la coalition Euskal Herria Bai. La coalition évoluera vers un parti politique permanent rassemblant les abertzale de gauche et assurant la représentation du Mouvement Abertzale sur le front politique et institutionnel. Les résultats d'EH Bai s'améliorent sans interruption et connaissent une accélération à partir des élections municipales de 2020.

Solidarité et réveil culturel

À partir des années 1970, l'expression culturelle basque réveille l'attachement à l'identité et au Pays Basque au sein de la population. Les premières ikastola sont lancées. Cette période est aussi marquée par le procès de Burgos, les actions de solidarité et les mobilisations en faveur d'une reconnaissance du statut de réfugié politique.

Gazteriak, 1995

Gazteriak se crée en 1995 pour porter les revendications et mobiliser les jeunes du Pays Basque Nord. En 1996, la première édition du festival EHZ est organisée avec l'ambition de changer d'échelle, toucher une jeunesse large et renforcer les liens entre la côte et l'intérieur. Les années 1990 seront aussi marquées par la création d'Abertzaleen Batasuna pour dépasser les scissions au sein des abertzale.

La revendication pour la reconnaissance institutionnelle

Les dynamiques et mobilisations en faveur de la reconnaissance politique du Pays Basque Nord permettront cependant des moments de rassemblement des forces. La création de Batera en 2002 ouvre une nouvelle phase d'accords larges et de mobilisations autour d'un socle de revendications.

La Communauté d'Agglomération Pays Basque, 2017

En 2012, le combat pour la reconnaissance institutionnelle aboutit à un consensus politique et social historique en faveur d'une Collectivité Territoriale. De même, la Déclaration de Bayonne est signée en 2014 pour mener la résolution politique du conflit en tant que Pays. Bien qu'inférieure au consensus, la proposition de l'État de créer la CAPB en 2017 marque une avancée avec la première reconnaissance politique du territoire.



“Gazte esparruan aktibatu eta borroka ezberdinetan egon behar dugu, mugimendu abertzalearen hegalpean eta gure beharrak ortzi-mugan ezarriz”



Irantzu Idoate Funosas
Ezker abertzaleko militantea
Argazkiak: Xuti Gazte

GAZTEOK EUSKAL HERRIAREN ALDE EKIN!

Belaunaldi zahar eta berrien arteko haustura, arrakala, arraildura edo pitzadurari buruz zenbat ele ez ote dugun entzun. Gazteriari pentsatu eta amarekin bizkarra bizkarraren kontra jarritako haur baten irudia heldu zaigu anitzi burura. Alta, gazteok badakigu eskua hartzen, eta elgarri ematen. Gazteriaz galdetu eta zerrenda luzeko ohar sorta baten oihartzuna iristen zait niri belarri bazterretara: “Non dira egungo gazteak? Zer egiten dute? Ez ditugu ikusten. Ez dira mugitzen...” Gazteak herrietan gira, klima aldaketaren kontrako ekimenetan, mugimendu feministaren hitzorduetan, azterketak euskaraz pasatzeko mobilizatzen, gaztetxeetan, kultur elkarteetan... Gazteak herria egiten ari gira.



“Duela zenbait hamarkada pentsaezina izanen zen eszenatoki baten parean gira; ezker independentismoa indartuz doa Euskal Herri osoan gaindi”

“Ipar Euskal Herriko gazte gehienak kanpora goaz, eta hutsune handia uzten dugu gure herrietan”



Gazte mugimendua etengabeko azalberritzean dabil. Ipar Euskal Herrian ere mugimendu abertzaleak ibilbide luze eta oparoa izan du azken sei hamarkadetan, eta etapaz etapa gazteria presente egon da. Momentuan momentuko erronka eta testuinguru politikoei erantzuteko prestu, gazteria abertzaleak borroketara lotu eta berriak sustatu ditu. Ideia batzuk zalantzan jarri eta beste ideia garaikideak ekarriz, mugimendu politikoak berritzeko ezinbesteko harriak pausatu eta militanteak sortu eta formatu ditu. Gazteriari propio zitzaizkion espazioak garatu eta gainerako eragile abertzaleekin lan egiten asmatu du. Gisa horretan osatu baita hamarkadaz hamarkada gure herriaren askapen prozesuaren katea, kate iraunkor eta sendoa. Eta aitzinekoen gisa berean, gaur egungo gazteok ere kate horren katebegi bat gehiago gira.

Hirurogei urteren ondotik, inoiz baino panorama ilusionagarriagoa dugu Euskal Herrian. Duela zenbait hamarkada pentsaezina izanen zen eszenatoki baten parean gira; ezker independentismoa indartuz doa Euskal Herri osoan gaindi, lurralde bakoitzean eta herriz herri. Hamarkada luzeetako lanari esker, egun gero eta esparru gehiagotan gaude, gero eta jokaleku gehiagotan eta gero eta aukera berri gehiagoren atean. Hau da aukera berrien tenorea, eta bide honetan gazteok ere lekua hartu behar dugu.

Ez dira garai errazak gazteontzat. Ipar Euskal Herriko gazte gehienak kanpora goaz, eta hutsune handia uzten dugu gure herrietan. Gure hiru probintziak sakoneko odoluste bat bizitzen ari dira. Etorkizun iluna programatu digute. Baina, gaur egungo gazteriak ere badu zer borrokatu eta zer irabazi. Gazteak zer? Gazteak non? Gazteak nola? Belaunaldi berria hemen da, forma ezberdina hartzen ari den mugimendua izanik ere, hemen da. Ez dira berdinak gure interesak eta lehentasunak, beste borroka molde batzuk garatzen ari gira, jende gero eta gehiagorengana hurbiltzen ahalegintzen gira, azalean daramatzagun problematikak anitzagoak dira. Historian zehar iraun duten problematikez gain, gehiago dira gazteok buruan ditugun kezkek. Ez zaigu etxebizitza eskuragarriarik eskaintzen, eta beraz, gure herrietatik joatera eramanez gira. Sistema zisheteropatriarkal

kapitalistak zanpatzen gaitu. Azterketak euskaraz egin ezinean gira oraindik, eta goi-mailako ikasketak Ipar Euskal Herrikan kanpo egin behar ditugu. Sektore guzien artean prekarioena da gazteriarena. Hala eta guztiz ere, arazoak arazo, gazteria herrian engaiatua da; EHZ festibalean, gaztetxeetan, kultur elkarteetan, ikastolen aldeko proiektuetan, besteak beste. Gaur egungo gazteok gure borroka balore feministetan garatzen dugu, elkar zaintzan oinarritutako bizimodu baten aldeko parioa eginez. Feminismoa ardatz eraikitzen dugu herria. Eredu gero eta zabal eta anitzetagoetara goaz, eta konexio eta harreman berriak sortzen ditugu. Nundik heldu giren argi dugu, eta gure herriaren askapen nazional eta sozialaren aldeko borrokari eusteko prestu gira, baina nora joan nahi dugun argitu eta lehen lerroan jartzea ere lehentasunezkoa zaigu.

Oinarri horietatik abiatuz, oraindik ere elkartu, saretu eta antolatzea beharrezkoa da. Gazte esparruan aktibatu eta borroka ezberdinetan egon behar dugu, mugimendu abertzalearen hegalpean eta gure beharrak ortzimugan ezarriz. Askapen prozesuak ez du etenik, etengabe aitzinatzen segitzen du gurgilak, eta gazteriak protagonismo osoa izan nahi du ibilbide honetan. Protagonismo osoa, herri honi ekarpena egiterakoan lehen lerroan egon nahi eta behar baitugu. Gure eskuetan hartuz bizitzak eta etorkizuna. Herria eskuetan hartuz. Euskal Herriaren alde ekin nahi dugu, eta bide horretan Ipar Euskal Herrian mugimendu azkar bat sortzea ezinbestekoa da. Gazteria antolatua behar dute gure herriek, problematika propioak azaleratu eta borrokatuko dituen, eta gainerakoei ekarpena egingen diena. Hainbat esparru eta borroken arteko bideorri komuna eraiki behar da, elgarrekin gogoetatu eta hausnartuz. Gisa berean, gazteok gure artean elkartu eta espazio eta tresna propioak sortu behar ditugu, gure artean eta guretzat. Gazteok lekukoa hartzeko prestutasuna dugula erakutsi dugu hamaika aldiz, herri honek bizi behar badu gure eskutik izanen delako. Dударik gabe, gazteon herriaren aldeko borroka markatuko ditu hurrengo urteak, hemendik sei hamarkadara Euskal Herri askea izan dezagun, justua, euskalduna, feminista eta sozialista.

ERREGIMEN HETEROSEXUALA ARRAKALATZEN DUTEN GORPUTZAK

Bollerak, marikak, transak, intersexak... 'arraro' ugari ari dira eguneroko borroka politikoan, sistema zisheteropatriarkalaren aurka. Identitate pertsonal eta desira sexual hutsak baino askoz gehiago dira, gorputza lubaki eta kolektiboa arnas duten subjektu eta estrategia politikoak. Egungo sistemak ikusezin eta otzan nahi baditu ere, badute zer erakutsi eta zer aldarrikatu. Eta mundua eraldatu nahi dugunok badugu zer entzun eta zer [des]ikasi.



Natalia Gardeazabal, Elene Lopetegui eta Jenofa Bernokoirigoin. FOKU

ERREPORTAJEA

Erria

HETEROARUAZ BESTE EGITEN, ELKARREKIN

Lau hamarkada luzeko ibilbidea du Euskal Herrian bolleren borrokak; garaiko lesbiana feministen oinordekoak dira. Desira eta identitate sexual hutsa baino askoz gehiago da bollerismoa: sistema zisheteropatriarkal eta koloniala borrokatzeko estrategia politikoa, gorputzetik eta egunerotik arituz, eta taldean eraikiz.

‘Inoiz ez da berandu bollera izatea erabakitzeko’, ‘Bollera da bide bakarra!’... hainbatetan irakurri eta entzun ditugu aldarri horiek, nagusiki mugimendu feministaren eskutik. Ez dira lelo hutsak; hargatik, akaso, deserosotasuna eta hazkura eragiten dute maiz. Zer da, ordea, bollera izatea? Zergatik ez erabili ‘lesbiana’, eta kitto? Ez al da ba bakoitzaren desiran hasi eta bukatzen? Eta hala bada, zergatik ez gorde norberaren intimitaterako?



Jenofa Berhokoirigoin, Elene Lopetegik eta Natalia Gardezabal. FOKU

Desira lesbiano hutsetik harago zegoen horrek sortzen zidan interes handiagoa”.

Harago dagoen hori da, hain justu, heteroaraua bere osotasunean borrokatzea, Lopetegiren arabera: “Bollera da emakume-gizon binomiotik urruntzea, eta gatazkan bizitzea zure desirekin: izan lagunekin zenbat denbora pasatu nahi duzun, zein etxetan bizi nahi duzun, nolako harremanak dituzun, zein gauza dituzun lehentasunezko... Zutaz espero den hori ez egitea, edo behintzat, zalantzan jartzea”. Horregatik, bollerismoa hautu politiko bat da, eta gorputza, egunerokoa, mundua ikusteko eta bertan egoteko modua... zeharkatzen ditu.

“Heteroaraua denean dago, eta hain omnipresentea izanik, ez da ikusten, identifikatzen eta galdekatzen. Bollera batek ikusten ez den hori mahai gainean jartzen du, galdekatu eta deseraiki; beste bide batzuk sortuz. Ez bazara heteroarauan, ikusten duzu zenbateraino dagoen eraikia dena. Eta horrek galdera berri batzuk ekartzen ditu”, azaldu du

Berhokoirigoinek. Eta, galderak egiteaz gain, politizatzea eta eraikitzea ere badute xede Gardezabalek adierazi moduan. “Ez da niri gertatzen zaidan gauza bat, gustatzen zaidan zerbait; bizitza politikoa da. Gure borroka izan da hori ikusaraztea”.

Gorputza da gudu-zelaietako bat: “Sistemak bere egina duen territorio bat da, heteroarautua erabat, txikitatik. Nahiz eta gauzak identifikatuak izan, deseraikitze hori luzea da, eta ez da baitezpada erraza. Jendearen begiradak ere asko eragiten digu”, adierazi du Berhokoirigoinek. Horregatik, borrokarako tresna ere badira gorputza eta estetika. Gardezabalek dioenez, aldaketa nabaria da horretan: “Lehen patroio oso finkoak zeuden; luma zenuen ala ez. Zergatik? Askoz joko gehiago behar duzu. Hor ere garapen polita gertatu da”. Zentzu horretan, bollera ez da identitate bakarra eta finkoa, Berhokoirigoinen aburuz: “Ni Gamarten edo Leitzako bollotopaketetan ez naiz berdina, ez nuen berdina performatzen”. Bollerismoak badu performatibitate eta estetikatik, beraz.

BORROKAREN GENEALOGIA
Gorputzari ez ezik, hizkuntzari ere loturik dago bollerismoa, Gardezabalen arabera: “LGTBIQ+ historian joan dira hizkiak gehitzen. Arraroen mugimendu horretan subjektu asko daude, eta horietako batzuek izan dute presentzia eta hizkuntza gehiago. Gu ukatuak eta menpekoak izan gara gaurdaino”. Haren ustez, azken urteotan L (lesbiana) hori B (bollera) bihurtu da, eta bilakaera interesgarria izan da: “Ez ikusgaitasunari dagokionez

bakarrik, baita hizkuntzari eta errelatoari dagokienez ere. Hizkuntza da existentzia bera, izana bera. Gu subjektu izan behar gara geure burua ulertu ahal izateko, eta munduak gu ulertu ahal izateko”.

Natalia Gardezabal FOKU



“LGTBIQ+ historian joan dira hizkiak gehitzen. ‘Arraro’-en mugimendu horretan subjektu asko daude, eta horietako batzuek izan dute presentzia eta hizkuntza gehiago. Gu ukatuak eta menpekoak izan gara gaurdaino”

Horri tiraka, L eta B hizkiak egin ditu bere: “Nik neure burua

bollera bezala definitzen dut. Baina nire belaunaldiarekiko zintzoa ere izan behar naiz, eta lesbiana hitza ez dut inoiz ukatuko”. Izan ere, lesbiana feministek ekin zioten bideari 1970 eta 1980ko hamarkadetan. 1969ko Stonewalleko istiluen hondarretatik, LGTBI mugimenduak astinaldi handia bizi zuen munduan, baita Euskal Herrian ere: kolektiboen sorrerak, Francisen heriotza, mobilizazioak... Giro horretan, 1983an, Euskadiko Lesbianen I. Topaketak egin zituzten Orereta/Erreterian. 1985ean, Euskadiko Lesbiana Feministen Kolektiboa sortu zuten, ordura arte herrialdeko aritutako kolektiboaren topagunea.

Lesbianatik bollerarako bidea prozesu bat izan dela azaldu du Lopetegik. “Duela 40 urte, lesbiana desira hutsetik ulertzeak berak ere bazekarren apurketa gizartearekiko. Baina, egun, hori diluitu egin da, eta desira hutsak


ez zaitu ateratzen heteroarautik”. Egun ere lesbiana leku eta jende askorentzat baliagarria izan arren, “normalizatu eta normatibizatu” egin dela uste du. Berhokoirigoinek subjektua bera dela gehitu du: “Lesbiana feministatzat zuten euren burua aktibista haiek; ez ziren lesbiana gisa identifikatzen, lesbiana feministak ziren. Hori argi eta garbi zen patriarkatuarekin apurtzeko. Lesbiana feministaren gorputz hark eta egungo bollera gorputzak helburu bera dute. Hitzak aldatu dira, bakoitzak bere berritasun, irakurketa, kritika eta autokritikak ekarri, bide bera segitzen dugu; subjektu iraultzaile bera da garaiko lesbiana feminista eta egungo bollera”. Aurten, lau hamarkada geroago, Leitzan egindako Euskal Herriko Bollotopaketetan aitortza egin diete, eta EHGAMek Urrezko Hirukia eman die 1983an Euskadiko Lesbianen Topaketak antolatu zituztenei.

“Lesbiana feministaren gorputz hark eta egungo bollera gorputz horrek helburu eta helmuga bera dute. Hitzak aldatu dira, baina bakoitzak bere berritasunak, irakurketak, kritikak eta autokritikak ekarri, bide bera segitzen dugu; subjektu iraultzaile bera da garaiko lesbiana feminista eta gaur egungo bollera”

“Bollera naiz, ezin naizelako bestela izan. Bollera identifikatzen naizenetik ulertzen dut hobeto mundua”, dio Elene Lopetegik (Donostia, 1995). Hala dira Natalia Gardezabal (Basauri, 1967) eta Jenofa Berhokoirigoin (Gamarte, 1985) ere. Honela gogoratzen du azken horrek: “Momentu batez ulertu nuen sistema, heteroaraua identifikatu nuen, eta hori identifikatzerakoan ulertu nuen nire lekua zein zen.



1983an Euskadiko Lesbianen Topaketak egin zituzten Orereta/Erreterian. Aurtengo apirilean, Euskal Herriko Bollotopaketak egin dituzte Leitzan. Oreretako antolatzaileei aitortza egin diete. BOLLTOPAKETAK



“Bollera bada emakume-gizon binomio horretatik urruntzea, eta gatazkan bizitzea zure desirekin: izan

lagunekin zenbat denbora pasatu nahi duzun, zein etxetan bizi nahi duzun, nolako harremanak dituzun, zein gauza dituzun lehentasunezko... Zutaz espero den hori ez egitea, edo behintzat, zalantzan jartzea”

KOLEKTIBOAREN INDARRA

Bide urratzaile haiei esker, egun badaude erreferente eta ereduak. Ordea, bestelakoa zen egoera Gardeazabalen gaztaroan: “15 urterekin ez nuen erreferenterik nire burua ulertzeko. Ondorioz, beste errelatoa hartu behar duzu: hegemonikoa, heterosexualitatearena. Behar dituzu erantzunak, zer egin sexualitatearekin, harremanekin, sentimenduekin... Handik eta hemendik hartzen dituzu gauzak, baina ez zara zu”. Berhokoirigoinek ere antzeko gomuta du: “Nik ez nuen erreferenterik. Nafarroa Behereko herri txiki batean sortu nintzelako, nire inguruan ez zegoen bikote gay edo lesbianarik, eta are gutxiago sexu-genero disidenterik”.

Gogoan du bollerismora liburuaren bidez iritsi zela, eta orduan jabetu zela bizi zuena auzi politiko eta sistemikoa zela. Gero, sexiliora jo zuen: “Monrealera joan nintzen, eta han bizitu ditudan urteak izan dira bolleren artean. Han osatu dut nire ni-a”.

Aldiz, Lopetegik izan du nondik edan: “Ernaik ZukGua prozesuan feminismoan beste apustu bat egin zuen. Niri, auzoan, inguru eroso tokatu zitzaidan: nahiko neska ginen, giro ona, feminista... Oraindik ez nintzen bollera bezala identifikatzen, baina entzuten nituen gauzak: bollera izatea politikoa da eta Bilgune Feministaren hainbat kanpaina, Medeak... Bazeuden erreferenteak, eta hori izateko gogo bat”. Bollerismorako bidea egin zuen gero: “Bide pertsonal eta kolektiboago bat garatzen hasten zara. Zure inguruan identifikatzen hasten zara zer jende dagoen, zer kolektibo dauden bollera izatetik mugitzen. BALA sortu zen Gasteizen, Donostian saiakera egin genuen Tiorekin, gero Bollurria iritsi zen...”.

Erreferenteek nola, kolektiboak ere garrantzi berezia du. “Bollera identitate kolektibo bat da, eta hala funtzionatu behar du. Helburua heteroarauarekin apurtzea izanik, kolektiboan eragin behar da. Nik nire identitate hori ez dut talderik gabe ikusten, sare hori ezinbestekoa da”, azpimarratu du Berhokoirigoinek. Lopetegik azaldu duenez, bollarak geroz eta sare gehiago dituzte: “Bertso munduan, etxebizitzaren arloan... Nahiz eta ez izan mugimendu egituratu bat, eztabaidarako antolatutako espazio horietatik gogo bat sortu da proiektu eta

hausnarketetarako”. Sare horiek, antolakuntzarako ez ezik, bizitzeko eta plazererako ere ezinbestekoak direla aldarrikatu dute.

LOTZEKOAK ETA ASKATZEKOAK

Bolleren arteko sareak ez ezik, beste borrokekin eraiki beharrekoak ere ezinbestekoak direla diote. “Testuingurua ikusita, borroka ekologistan edo eskuin muturraren gorakadari aurre egiteko borroketan egon beharko dugu. Gure diskurtsoak beharko du leku bat”, nabarmendu du Berhokoirigoinek. Lopetegik arrazakeriaren aurkakoa gehitu du: “Mugimendu feministan egin da bidea kolektibo antiarrazista, eta kide migratu eta arrazializatuekin; kolektibo transmaribolloetan ere egin behar dugu”. Ezkerreko erreazionarismoari erantzuteari ere beharrezko deritzo: “Gu ez gara ari borroka identitario bat egiten; gure identitate propioetik ari gara borrokan. Gure identitatea ez dugu ukatzen, hain justu, identitate hori zapalduz eraiki dutelako batzuek euren mundua”.

Transen aurkako oldarraldiari erantzutea ere lehentasunatzat dute: “Bollera subjektua zabala da, eta transfeminismotik ari gara eraikitzen, ezin da bestela ulertu. Frantziako Estatuan bada transen aurkako mugimendu bortitz bat, eskuin muturrak aurrera eramana, politikari eta komunikabideek bideraturikoa. Borroka minberatsu eta potolo bat hori izango da”. Lopetegik gogorarazi duenez, mugimendu bolleroak aterpe duen mugimendu feministan ere bada korapiloa: “Araoa dago terf-ekin, eta heldu behar

diogu. Zergatik kide trans batzuek utzi diote zenbait espaziotara joateari?”. Diskurtso esentzialistei aurre egin beharra aldarrikatu du Gardeazabalek.

Erronka eta korapilo horiek globalak dira, eta Euskal Herria ez da oasi bat. Halere, Gardeazabalen iritzirako, baditu berezitasunak: “Ez gara munduko zilborra, baina rara avis gara. Izkina txiki honetan, zailtasunak zailtasun, bagoaz aurrera. Non egiten dira 600 laguneko bollotopaketak?”. Eta, motel bada ere, euskal nazio askapen mugimendua eta prozesua ere borroka horietara zabaltzen ari dela uste du: “Pazientzia handiz, eta oso motel doa. Elefante handi bat mugitu behar da. Argi dugu hori, eta ez diogu gure buruari tranparik egiten; badakigu, eta horretan ari gara”.

Lopetegik etxeko lanak ere ikusten ditu: “Prozesu batek abiadura hartzen duenean, eta gauzak inertziatzat egiten hastean, ahazten dituzu gauza batzuk. Eta gauza horiek gu gara. Berdintasun politikak, LGTBI politikak... non daude gure txosten eta hauteskunde proposamenetan? Mugimenduan bertan, ikuspegi militantetik, egiten ditugun ekintzak edo antolatzen ditugun gauzak zeinentzako dira? Nor sentitzen da eroso? Ezin dugu utzi denontzat bizigarria izango den etorkizuneko Euskal Herri desiragarri baterako, hori lortzeko prozesua ere denontzako desiragarria izan behar da”.

Ados da Berhokoirigoin: “Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzaleak behar du bere burua deseraiki. Guk eman

dezakegu, baina parean behar da deseraikuntza prozesu bat. Lekua utzi behar da, eta ez naiz ari espazioaz bakarrik”. Herrigintzari ere erreparatu dio: “Oinarria homogenea bada, emaitza ere multzo horrentzako izango da. Oinarrian aniztasuna bada, pentsa daiteke sortuko den hori jende gehiagorentzat izango dela, eta jende gehiagok bat egingo duela horrekin. Eta biharko Euskal Herria nahi badugu jende guztiarentzat izatea, antolakuntzan ere behar da aniztasun hori”.

Hain justu, Ipar Euskal Herrian abiatu berri du transmaribollo mugimenduak bere bidea: “Ari da sortzen eta egituratzen gutasun hori. Indibidualki bollerismotik aitzina egiten aritu diren horiek gu hori baldin badute orain, bidea emankorra izango da”. Altxa Lili kolektiboaren ekarpena nabarmendu du: “Barnealdetik, baserri mundutik datoz, eta marika eta bollera identitateetatik ari dira”. Baionan ere sortu berri da Bitxi Bitxi kolektiboa, identitate bollera, marika, trans eta queer-etik. Horrek erronka berri bat zabaltzen du nazio ikuspegitik: zubiak eraikitzea. “Ezinbestekoa da iparraldea eta hegoaldea batzea, baita mugimendu feministan ere. Bolleren borrokan, baita feminismoan ere, hamar urrats aurrerago dira hegoaldekoak, baina ezinbestekoa da bien arteko elkarlana, bai herri eraikuntzatik, baina baita elkartasunetik ere”.





ENTREVISTA Mer Gómez

Erria

Fotos: Dani Blanco, Argia

Entrevistamos a Mer Gómez, activista intersex y escritora. Autora del libro “La rebelión de las hienas”, de la editorial Bellaterra. Es, además, graduada en Periodismo y doctora en Estudios Feministas y de Género. Colabora con la revista Pikara Magazine. También ha escrito y protagonizado los monólogos para micro-teatro *La revolución de Lola* y *Solo apto para BICHAS RARAS*, y el corto-documental *Se receta silencio*. Desde 2020, coordina el colectivo “i de intersex” y forma e informa, a través de talleres y formaciones, sobre intersexualidades y diversidad corporal. En esta entrevista charlamos sobre intersexualidad, binarismo, sistema cis-heteropatriarcal y otros temas.

En tu libro “La rebelión de hienas”, hay una cita de Mauro Cabral donde se plantea la siguiente pregunta: “¿Quiénes son los intersexuales?”. La cita sigue así, “aquellos a quienes se llama intersexuales somos por lo general hombres o mujeres que encarnamos una diferencia entre tantas”. ¿Cómo le definirías la intersexualidad a cualquiera que haya oído el término por primera vez?

Todo el mundo tenemos en el imaginario cultural un cuerpo de mujer y un cuerpo de hombre estéticamente aceptables, ¿verdad? Pues bien, las personas intersex nacemos con características sexuales (gónadas, cromosomas, genitales, hormonas) que no encajan en esa idea cultural de dos tipos de cuerpos deseables. Precisamente porque esos dos arquetipos corporales, femenino y masculino, son muy rígidos, existen los cuerpos intersex. Pero, a la vez, no hay ningún cuerpo igual a otro en lo que se refiere a características sexuales.

Todos los cuerpos son diferentes. Tanto a nivel hormonal: ¿Quién tiene las mismas cantidades de estrógenos o de testosterona?, ¿tienen los hombres estrógeno?, ¿tienen las mujeres testosterona?; como a nivel cromosómico: ¿Quién sabe cuál es

su cariotipo o cuántos cariotipos diferentes existen?, ¿hay hombres con cromosomas XX y mujeres con cromosomas XY?, ¿hay personas con cromosomas XXY o mosaicos?; como a nivel fenotípico: ¿hay mujeres que tienen barba?, ¿hombres que tienen mamas?, ¿hay mujeres con testículos, vulva y clítoris?, ¿hay mujeres con ovarios pero sin útero ni vagina?, ¿quién tiene las mamas del mismo tamaño, los genitales de la misma forma o de los mismos centímetros, o el vello del mismo grosor o en la misma cantidad? Cuando hablamos de intersexualidades, hablamos de toda esa variabilidad que puede aparecer en los cuerpos de forma natural.

La biomedicina considera una patología la intersexualidad. Wikipedia la define hoy en día como “un conjunto de anomalías en la diferenciación sexual”. ¿Crees que la despatologización de la intersexualidad o la transexualidad supone una amenaza para el sistema cis-heteropatriarcal binario?

Eso es. El concepto intersex, o intersexual, se utiliza hoy porque ha habido una reapropiación, una resignificación, por parte del activismo intersex. Lo hemos cargado de un significado político para luchar contra esas violencias que se

“ES LA BIOLOGÍA,
PRECISAMENTE, LA QUE PONE
SOBRE LA MESA UNA GRAN
DIVERSIDAD DE CUERPOS”

“Las personas intersex nacemos con características sexuales (gónadas, cromosomas, genitales, hormonas) que no encajan en esa idea cultural de dos tipos de cuerpos deseables”

“Todas las personas, en un estado democrático, deberíamos tener los mismos derechos. Y esto pasa por romper muchas ideas preconcebidas y aceptadas en nuestro contexto que sigue siendo binario, racista, machista, capacitista, clasista, heterosexual, etc.”

han producido, que se producen, contra nuestros cuerpos de forma obligatoria para encajarlos y adecuarlos a los arquetipos estéticos establecidos. ¿Por qué supone una amenaza? Porque supone aceptar como sanos, como deseables, una variabilidad de cuerpos que rompen la idea sexual binaria establecida en nuestra sociedad.

Muchas veces se contraponen la biología o la medicina tradicional (biomedicina) a la cultura o la variabilidad social. Biología versus estructuralismo, materialidad versus construcción, biología versus teoría queer. Es una construcción ideológica que opera hoy en día no solo en sectores reaccionarios sino en amplias capas de sectores de izquierda. En el libro, incluyes la siguiente afirmación de bell hooks: “para plantar los cimientos de la futura lucha feminista, hay que poner el foco en erradicar las políticas de dominación, las bases culturales subyacentes y las causas del sexismo y de otras formas de opresión grupal.” Hablando de las bases culturales subyacentes, ¿qué reflexión harías sobre esas dicotomías?

Para mí, las contribuciones de bell hooks han sido muy importantes a la hora de entender la lucha feminista. En primer lugar, la biología no habla de un binarismo sobre dos tipos de cuerpos

inquebrantable o inmutable. Es la biología, precisamente, la que pone sobre la mesa una gran diversidad de cuerpos, de cromosomas, de características sexuales, de fenotipos, de genitalidades, de variabilidad de hormonas. Las dicotomías sirven, han servido, para organizar la sociedad que conocemos a día de hoy. Según cada momento histórico y cultural, los mandatos han sido unos u otros. Y las personas que rompían las normas sociales han recibido un trato, una lectura, una aceptación u otra.

Del mismo modo que la biología, acudir a la historia –y no solo a la de occidente– nos invita a ampliar todo ese abanico de posibilidades, de narrativas, de normas sociales y culturales que han existido. Las dicotomías, a veces, han sido y son necesarias para identificar según qué violencias, por supuesto. Pero igual que han sido construidas en un momento determinado, también, debemos estar receptivas a deconstruirlas, a flexibilizarlas. Sobre todo, mientras siguen excluyendo y marginando a algunos grupos y comunidades. Todas las personas, en un estado democrático, deberíamos tener los mismos derechos. Y esto pasa por romper muchas ideas preconcebidas y aceptadas en nuestro contexto que sigue siendo binario, racista, machista, capacitista, clasista, heterosexual, etc.

En los movimientos de transformación social, bien sean feministas, soberanistas, partidos o movimientos autodefinidos de izquierda, etc., son bastante comunes las posiciones reaccionarias hacia todo lo queer. Desde posiciones diferentes, se argumenta que las posiciones queer atomizan a los sujetos transformadores, que olvidan los asuntos “materiales”, que son problemas meramente “identitarios” ...

Hoy he visto una viñeta de Claudia GR Moneo, publicada en Pikara Magazine, que ilustra muy bien esto: “divide y vencerás, decía el puñetero patriarcado”. Dentro de las izquierdas, de los movimientos sociales o políticos, de los feminismos, deberíamos escucharnos más y señalarnos menos. Está claro que no vamos a dinamitar el sistema de un día para otro, eso es imposible. Probablemente, una utopía. Pero si la teoría queer sirve, de algún modo, como una herramienta más que nos invita a identificar a los aparatos generadores de violencias, a ampliar

los marcos y categorías establecidas, pues qué importante entonces hacer esta lectura.

En mi opinión, la idea no es seguir creando identidades fijas sino transitorias. Ahora bien, mientras haya discriminaciones, estas categorías, estas identidades, la pluralidad de sujetos políticos, son necesarias. Lo que no se visibiliza, no existe. Y las personas intersex esto lo sabemos muy bien. Hasta que no hemos empezado a romper el silencio, a hablar de que existen personas con cuerpos que rompen la norma sexual binaria y que estaban siendo violentados sistemáticamente de manera obligatoria, nadie sabía que nuestros derechos estaban siendo vulnerados.

En el estado español hemos vivido recientemente una transformación del marco jurídico para las cuestiones de género, con las leyes del “Sí solo es sí” y la “Ley trans”. Transformación cultural y social versus cambio jurídico y legal. ¿Qué viene primero? En otras palabras, ¿las leyes generan cambios culturales o son los estos los que crean las condiciones para los cambios legales?

Creo que, en esta lucha, si los colectivos feministas y de personas LGTBI+ no llevasen en las calles dejándose el cuerpo desde hace décadas, estas leyes no habrían salido adelante hoy. El Estado Español es el cuarto país de Europa más avanzado en materia de derechos LGTBI+ y eso, sin duda, es gracias al esfuerzo de los movimientos sociales y políticos. También ha sido importante que las personas que formaban parte de esos movimientos hayan llegado, en los últimos años, a la política.

Por otro lado, yo no tengo claro actualmente quiénes son las minorías y quiénes son las mayorías. Creo que a todos esos grupos a los que se nos llama minorías quizás hayamos llegado, con los años, a ser una mayoría. Una mayoría, hoy visible, que ha ido propiciando poco a poco, con mucha paciencia y probablemente sin hacer todo el

“Creo que, en esta lucha, si los colectivos feministas y de personas LGTBI+ no llevasen en las calles dejándose el cuerpo desde hace décadas, estas leyes no habrían salido adelante hoy”

ruido que deberíamos, que las leyes hayan salido adelante.

Para terminar, han pasado dos años desde que escribiste La rebelión de las hienas. ¿Que feedback has recibido del libro? Y mirando hacia el futuro, ¿cuál crees que debe ser el trabajo por realizar en las izquierdas sobre este tema?

“La rebelión de las hienas” no para. Las hienas están recorriendo un montón de municipios y ciudades del Estado Español y está llegando cada vez a más personas. También a esas intersex, de pueblo o ciudad, que no sabían que había otras como ellas ahí fuera cacareando y colectivizadas. Para mí, es un orgullo. Qué importantes son las narrativas para crear nuevos imaginarios que nos hagan posibles. Ojalá cada vez más referentes intersex.

Por otra parte, las izquierdas, tantas las políticas como sus representantes políticos, tienen que poner la vida de las personas intersex en el centro del debate. Hay una cierta tendencia, ahora que ya está en las siglas del colectivo, a nombrar la i pero a no profundizar en la i. Muchos representantes políticos probablemente no saben qué es la intersexualidad ni qué exigimos las organizaciones políticas de personas intersex. Pero ya estamos aquí, como agentes políticos. Así que, como dice Clara Montesdeoca de la asociación canaria “Caminar Intersex”, si ignoran nuestras demandas están siendo cómplices de que hoy se estén produciendo modificaciones genitales obligatorias a menores por cuestiones estéticas en los hospitales del Estado Español, de que se esté violando el derecho a la integridad corporal, a la autodeterminación sobre nuestro cuerpo, al consentimiento. Hablar de intersexualidades debería ser una responsabilidad social porque, de hecho, nos ayuda a todas las personas a flexibilizar una idea sexual binaria rígida que nos hace daño a toda la sociedad.

SINADURA

ZERGATIK SENTITZEN DUZUN



Hulki Okan Tabak. Unsplash



Iñi Etxezarreta
Militante transfeminista

Baina ez da sentimendu bat. Generoa ez da sentimendu bat, sexua ez den bezala (finean, gauza bera direlako). Ez duzu modu primario eta esentzialen sentitzen, ez dago zure gizentasuna sortzeko hormonon aliantza eta prozesu kimiko antolatu eta primitiborik. TERFen (euskaraz muturreko feminista transbartzertzaileak) aldarri ere bihurtu da hau, haiek, esentzialismotik, guk, ordea, transfeminismotik. Alderatu hau zuria izatearekin, errazagoa zaigu identifikatzen zuriak eta beltzak sortuak izan diren kategoria batzuk direla, ez direla sentimendu bat, baizik eta munduarekin harremantzeko, munduan egoteko eta batak bestea azpiratzeko gorputz batzuei eta besteei ezartzen zaizkien aldagai ezberdinen pilaketa, hain zuzen ere.

“Generoa ez da izan, baizik eta egin. Jaio aurretik sexuaren diagnostikoa egin eta segidan ezartzen diren rol, espektatiba, desira, jarrera eta ikuskerak dira, antzeztu egiten direnak, hau da, egin egiten dira”



TopSphere Media. Unsplash

Baina sentitzen duzu, kontrara, ile motzarekin hobeto ikusten zarela, eta futbolarekin bene-benetan disfrutatzen duzula eta emozioak aztoratzen zaizkizula, eta azkarrago korritzen zara ipurditik zakila sartzen baduzu alutik beharrean (ez da penetrazioa analaren kontrako aldarri bat hau), eta berdin zaizula benetan besteak zer esango duen zuk arrazoia duzula uste duzulako, benetan uste duzu. Ez duzu sentitzen sostengatu behar duzunik, beste batzuek sostengatzen ez badute beste inork egingo ez duela sentitzen duten bezala. Ez duzu sentitzen ez zaintzearen kulpa. Baina zergatik sentitzen duzu, orduan, ez bada sentimendu bat?

Performatu eta errepikatzen duzulako (Butler, 1990). Generoa ez da izan, baizik eta egin. Jaio aurretik sexuaren diagnostikoa egin eta segidan ezartzen diren rol, espektatiba, desira, jarrera eta ikuskerak dira, antzeztu egiten direnak, hau da, egin egiten dira. Horiek errepikatzeren ondorioz barneratzen dugu, inkontzienteki, irrazionalki, automatikoki, eta horrela sortzen da genero identitatea. Horregatik sartzen gara askotan kontraesanean politikoki egin behar duguna eta antzematen dugunaren artean, gorputza aldarazia izan delako modu zehatz batean funtzionatu dezan.

“Gizontasunetik deslotzeko bidea ez da izango jarrera batzuk aldarazteko neurrietatik, baizik eta munduan egoteko tokia aldatzetik. Nola egin dezakegu hau? Bada, ditugun desira heteroarautu batzuk ez materializatzeko erabakiak hartzen”

Gizontasunari aurre egiteko, beraz, kategorietara joan behar gara, ez jarrera zehatz edo neurrietara. Horiek estrategikoak izango dira testuinguru, espazio, antolakunde edo komunitate batean, baina gizontasunaren gatazkatsuen, propio, izana bera da, identitatea, gizonen izaerak eta pertsonalitateak, alegia. Hortaz, gizontasunetik deslotzeko bidea ez da izango jarrera batzuk aldarazteko neurrietatik, baizik eta munduan egoteko tokia aldatzetik. Nola egin dezakegu hau? Bada, ditugun desira heteroarautu (ez soilik erotikoak, baizik eta bizi-ereduari loturikoak) batzuk ez materializatzeko erabakiak hartzen. Gai izan gara indarkeria matxista eta LGBTIfobikoaren gaineko etika feminista bat sortzen, eta horrek (beste gauza askorekin batera), desira batzuen eta horiek materializatu bitarteko prozesu batzuk moztu ditu. Hortaz, desira batzuk ez materializatzearen ardura kolektibizatu egin behar da, ezin da soilik ekarpen indibidual moduan proposatu, baizik eta urrats kolektibo eta kualitatibo moduan antolatu behar da. Hori, eta zaindu, gizona bazara, zaindu. Baina ez hitzaren esanahi erromantikotik, baizik eta bizitza sostengatzeko eta aurrera eraman ahal izateko egin behar den lana, denbora eta ardura hartzen, beste batzuek egiten dutelako zuregatik orain, doanik edo oso goera prekarizatueta.

Finean, gizonak eta emakumeak desagerrarazteaz ari gara. Baina lasai, izan ere, tamalez, hau oraindik ez da pasako. Bitartean, generotik deslotu ahal izateko egitura zehatzak sortu behar dira (Goikoetxea, 2021) ezin delako soilik erabaki indibidualetik pasa eta, horretarako, Euskal Estatu Feminista behar dugu ezinbestean.



1991, Nafarroa EHGAMen elkarretaratzea. Argazkia: EMAGIN

ESTRATEGIA TRANSMARIBOLLOAK: GIZON ETA EMAKUME KLASEEN SUNTSIPENERANTZ



Mijo Lizarzaburu eta Uma Ulazia
Militante transfeministak

Apirilaren 26tik 28ra bitarte Euskal Herriko seiehun bollera eta genero disidenteren topaleku egin genuen Leitza. Bada zer bait. Unibertsaltasunetik desterratzen gaituztenok identitate kolektiboak sortu behar izaten ditugu, eta identitate bolleroa inoiz baino kolektiboago sentitu dugu Leitza.

Bollotopaketetako aniztasunak argi utzi digu ez dagoela bollera izateko modu bat eta bakarra. Baina horrek ez du esan nahi oinarri komunak izendatzea, norabide eta estrategia bat fintzea beharrezko ez dugunik: hain zuzen ere, horixe baita identitate bat politiko egiten duena. Finean, gure oinarria inposatutako esentzien aurka altxatzen den anti-heterossexualitatea da. Bollera ez delako gorputz konkretu bat, emakume izatetik emakume ez izatera pasatzeko estrategia baizik.

GIZON ETA EMAKUMEAK PRODUZITZEN DITUEN HETEROSEXUALITATEA

Bollerismoa zer den azaldu baino lehen heterosexualitatearen definizio bat eskaini behar da. Guk marxismo feminismitik aztertzen dugu heterosexualitatea. Patriarkatuak emakumeak eta gizonak ekoizten ditu, kapitalismoak langileak eta burgesak sortzen dituen modu berean. Eta kapitalismoaren gisan, patriarkatuaren kasuan ere, batzuek besteentzat lan egitea da azken helburua.

Lore Lujanbioren hitzetan, bizirauteko gizonentzat dohain lan egin behar izateak eta, hain zuzen ere horregatik, botere gutxiago izateak egiten du, finean, bat, emakume. Beraz, emakume izatea klase sozial baten parte izatea da. Emakumea bere inguruko gizonak ondo egon daitezen arduratuko den doako langile bat izango da, bereziki familia nuklearretan, baina baita honetatik kanpo ere: gure gorputzak ez direlako soilik indibidualki apropiatzen bikote-harremanean, baizik eta kolektiboki emakume klase gisa.

Wittigen arabera heterosexualitatea gizon eta emakume baten arteko

harreman soziala da, gizonekin mendeko gisa harremantzea eta bizitza beraien arabera antolatzea da heterosexualitatea. Beraz, heterosexuala “izan” baino gehiago, bat heterosexualki harremantzen da. Emakumea izatea gizonekiko subordinazio harremanean dagoen klaseko kide izatea delako, ez naturaren legeen ondorio automatikoa, bortxaz ezarri den zapalkuntza patriarkalaren emaitza baizik. Eta zentzu horretan, heterosexualitatea interklasismoa da, emakumeen zapalkuntza mantentzeko balio duen kolaborazionismoa.

“Patriarkatuak emakumeak eta gizonak ekoizten ditu, kapitalismoak langileak eta burgesak sortzen dituen modu berean”

Mendeetan zehar diseinatutako erasoek (sorgin ehiza edo feminizidioak, kasu) ahalbidetu dute emakumeen domestikazioa: ez da prozesu idilikoa, pazifikoa, edo bat-batekoa izan. Emakume-klaseari mendetan zehar jasandako indarkeria beren aurka erabiltzen irakatsi zaio, bere zapalkuntza naturalizatzen eta erromantizatzen. Horregatik

desiratzen dute emakume naturalek Andonirekin edo Pellorekin maitasunagatik ezkontzea, bere gizona, harekin izandako haurrak (eta askotan) gizonaren gurasoak dohainik zaintzea. Ze polita den familia!

“Emakumea bere inguruko gizonak ondo egon daitezen arduratuko den doako langile bat izango da, bereziki familia nuklearretan, baina baita honetatik kanpo ere: gure gorputzak ez direlako soilik indibidualki apropiatzen bikote-harremanean, baizik eta kolektiboki emakume klase gisa”

ANTIESENTZIALISMOA

Feminismo materialistaren tesiek argi uzten dute: ez gaituzte zapaltzen emakumeak garelako biologikoki edo psikologikoki, gure zapalkuntza materialak egiten gaitu emakume, edo hobeto esanda, gure zapalkuntza naturalizatzeak egiten gaitu emakume.

Esentzialismo mota asko daude identitateak modu ahistoriko eta apolitikoan planteatzen.



Bollotopaketak

Horien artean, ohikoena da biologismoa, emakumeen eta gizonen artean dauden ezberdintasun politikoak aldaezina den naturan justifikatzen dituen ideologia. Christine Delphyren hitzetan, biologismoan erortzean historia naturalizatzen dugu, eta ondorioz gure zapalkuntza erakusten duten fenomeno sozialak naturalizatzen ditugu.

Biologismoaren, transfobiaren, bitartasunaren eta heterosexualitate inposatuaren aurka borrokatzeko, trans-mari-bollo komunitateak erabili izan dugun estrategia bat da norbera den hori izateko askatasuna aldarrikatzea. Gure beldurra da ea ez ote dugun hortik beste esentzialismo bat eraiki;

esentzialismo psikologikoa, sexuaren Egia genital edo hormonetan beharrean ariman edo psikean, hau da, autopertzepzioan kokatzen duena.

Ez dago barne zu-rik, ez dago barne egirik, testuinguruak eta egiturek egiten gaituzte. Barne zu-ak, jaiotzazko kontuak eta biologia erabiltzen dituzte politika egin ez dezagun: lan ez-ordainduaren (zaintzaren) kondena betikotu diezaguten, gatazkarako sarbidea eta biolentziaren erabilera blindatu dezaten, familia nuklearrak sortzen eta heterosexualak izaten jarrai dezagun. Naturaz eta sentimenduez hitz egiten digute, politikarako sarbidea ukatzeko.

“Ez gaituzte zapaltzen emakumeak garelako biologikoki edo psikologikoki, gure zapalkuntza materialak egiten gaitu emakume, edo hobeto esanda, gure zapalkuntza naturalizatzeak egiten gaitu emakume”



EMAGIN

“Gure beldurra da ea ez ote dugun hortik beste esentzialismo bat eraiki; esentzialismo psikologikoa, sexuaren Egia genital edo hormonetan beharrez ariman edo psikean, hau da, autopertzepzioan kokatzen duena”

“Esentzialismo guztiak dira problematikoak, esentzia aldaketaren ukapena delako. Gizon eta emakumeak, (eta kategoria horien ukapenetik sortzen garen transmaribolloak) ez gara jaiotzaz sortu, egitura sozial eta politikoez egiten gaituzte”

Esentzialismo guztiak dira problematikoak, esentzia aldaketaren ukapena delako. Gizon eta emakumeak, (eta kategoria horien ukapenetik sortzen garen transmaribolloak) ez gara jaiotzaz sortu, egitura sozial eta politikoez egiten gaituzte. Eta bertan dugun agentzia margena mugatua eta koiunturala den arren, sortu ditzakegu kategoria eta subjektu politikoak erresistentzian, norabide politiko emantzipatzaileekin.

Patriarkatuak emakume eta gizon kategoriak (materialki) sortu dituen bezala, guk bollera kategoria sortzen eta birsortzen dugu estrategikoki. Ulertuz, subjektu politiko baten gakoa ez dela norbera zer sentitzen den, aldaketa eta gatazka nondik eragin dezakegun baizik.

Baina, orduan, non geratzen da banakoaren askatasuna? Sorpresa! Egitura sozial eta politikoez egiten gaituzten heinean, patriarkatu kolonial kapitalistan ez dago askatasunik. Izan nahi duzun hori edo berez zaren hori izateko askatasuna aldarrikatzea historikoki garrantzitsua izan den arren, eta testuingururik bortitzenetan erabilgarri izaten jarrai dakigukeen arren, falazia bat da bere horretan. Izan ere,



EMAGIN

norberak nahi duena izateko askatasuna aldarrikatzen ari garenean, sistemaren arauak jarraitzeko edo ez jarraitzeko askatasuna ari gara aldarrikatzen.

Bollera identitate politikoa erabiliko dugu sozialki erresistentzia praktikei atxikitzen zaion heinean, eta gizonen botere sozial eta ekonomikoa errefusatzeko balio digun bitartean. Hau da, logika heterosexual eta kapitalistetatik kanpo dauden bizimoduak sortzeko balio digun heinean. Mugimendu feministaren barnean, estrategia bolleroaren zentralitatea aldarrikatuko dugu norabide transfeministan sakontzeko, klase kontzientzia areagotzeko eta espazio, denbora eta boterearen disputarako. Emakume klasearen alde egiteko, bere desagertzea iritsi arte.

ESTRATEGIA TRANSMARIBOLLOA
Mugimendu transmaribolloak ez du bilatzen banakoaren identitatearen, sentipenen edo desiren onarpena, guk proposatzen duguna gizarte ordena eraldatzea da, hau da, gizon eta emakumeekin bukatzea. Bollerismoa klase borroka delako, gizon eta emakume klaseekin bukatzeko borroka, ulertuta

hauek ez daudela biologian oinarrituta, baizik eta sistema heterosexualak sortzen dituen identitateak direla.

Ez ditugu soilik jasaten ditugun biolentzien inguruko diskurtsoak idazten, gure estrategia indarkeriaren erroa den sistema apurtzea delako. Ez dugu fokua gure ezberdintasunean jartzen, eta ez gara gure existentziaren inguruko azalpenetan gaitzen. Kontua ez da gure ezberdintasunaren kudeaketa, zuen arau heterosexuala baizik. Periferiatik ateraz, sistema oso baten irakurketak egin eta dimentsio ekonomiko, politiko eta sozial guztietan sartzen gara. Biktimismorik ez. Ez gara onartuak izatera iritsi nahi dugun ezberdin indibidualak, emakumeak esplotatzeko sortu eta birsortzen den inposaketa heterosexualaren aurka errebelatu garen subjektu politikoak baizik. Gizonak ez ditugulako desiratzen gara lesbianak, baina gizon eta emakumeak ekoizten dituen erregimen heterosexuala ez dugulako onartzen gara bollerak.

“Norberak nahi duena izateko askatasuna aldarrikatzen ari garenean, sistemaren arauak jarraitzeko edo ez jarraitzeko askatasuna ari gara aldarrikatzen”

“LO QUEER/QUIR” O CÓMO PENSAR Y MOVILIZARNOS MÁS ALLÁ DE LAS IDENTIDADES



Delia Giandei. Unsplash



Gracia Trujillo Barbadillo
Profesora de Sociología (UCM) y activista

Los activismos feministas, cuir, antirracistas, vienen desbordando desde hace tiempo las políticas identitarias (y al sujeto hegemónico de la izquierda, el obrero blanco, masculino, heterosexual), al **movilizarnos no tanto en función de una identidad previa como de unos objetivos compartidos**. En estos tiempos de crisis continuada del sistema capitalista, de pandemia global, colapso ecológico y avance de

las fuerzas neoconservadoras, necesitamos seguir pensando más en esos objetivos comunes que en identidades fijas, en alianzas y coaliciones de luchas, aunque sean puntuales, y en seguir fortaleciendo nuestras comunidades político-afectivas.

Las políticas identitarias funcionan compartimentando las movilizaciones y las demandas: el aborto es una lucha del movimiento feminista,

la despatologización trans es de los colectivos trans*, y así sucesivamente. La realidad social es, sin embargo, más compleja. Si analizamos el tema del trabajo sexual, por ejemplo, difícilmente podemos separarlo de las mujeres trans, ya que el primero es, en muchas ocasiones, una forma de supervivencia para estas mujeres. Estas demandas (aborto, despatologización trans, trabajo sexual), por otra parte, comparten muchos elementos entre ellas, como la autonomía corporal y decisional: nuestros cuerpos son nuestros y queremos decidir qué vidas queremos vivir.

Nuestras demandas y luchas feministas y queer/cuir, transfeministas, transmaricabollos, no tienen, por otra parte, nada de “marginales” o “particulares”. Además, como ya explicaron las lesbianas negras y las chicanas en los años ochenta, no podemos pensar la clase, la raza, la etnia, la sexualidad, etc., en función de una jerarquía, ni tampoco por separado. Este desbordamiento o ampliación desde los márgenes del sujeto de las luchas y de las políticas identitarias ha sido clave en el éxito movilizador de los feminismos de los últimos años. Actualmente, el sector excluyente del movimiento feminista argumenta que esta ampliación del sujeto del feminismo supone el “borrado de las mujeres”; al mismo tiempo, y este es todo un reto que nos plantea el ámbito legislativo, al diseñar propuestas como la relativa a la autodeterminación de género (la conocida como “Ley Trans”) hemos vuelto a pensar en sujetos e identidades menos fluidas.

En estos últimos años nos hemos concentrado mucho

en los peligrosos ataques por parte de grupos religiosos y anti-derechos que hablan de “ideología de género”, pero es importante que tengamos presente que estos discursos de odio también están viniendo del sector excluyente del feminismo, y que ambos movimientos tienen unas posiciones cada vez más cercanas. **El feminismo trans-excluyente está defendiendo unas ideas muy similares a la derecha conservadora e incluso la ultraderecha, como sucedió en los años ochenta durante las sex wars en Estados Unidos con el tema pornografía: un sector feminista, que defendía la censura, se alió con posiciones conservadoras**¹. El rechazo a los planteamientos cuir, transfeministas, tiene que ver con que suponen una crítica a un feminismo institucional, blanco, que no deja paso, que instrumentaliza la lucha para conseguir réditos electorales (y de otros tipos) y que ahora se revuelve para defender sus privilegios (de clase, entre otros). Es un enfrentamiento por la hegemonía en los feminismos, por el relato. Es toda una guerra al feminismo autónomo, de base, que está en la calle más potente que nunca (o estaba, en pasado, si lo seguimos dinamitando desde dentro).

Las teorías queer nos han brindado herramientas para pensar, en clave interseccional, más allá de los binarismos y habilitar espacios para esas “otras”, difícil echar esto atrás ahora, por no decir imposible. Intentar, además, enfrentar a movimientos (el feminista frente al LGTBI+-queer) no es nada estratégico y menos en el contexto actual de reacción conservadora. El feminismo es la casa de todas, de todes,

o no es. Su éxito movilizador en los últimos años tiene que ver con haber ampliado el sujeto de nuestra lucha, las demandas feministas, con pensar y actuar en clave interseccional, con articular alianzas, con empatizar, con estar al lado les unes de las otras y viceversa, escuchando, sin robar la voz ni victimizar ni violentar a nadie. El feminismo tampoco tiene una tradición punitivista; ojo con defender estas ideas que nos pueden acabar haciendo un flaco favor.

Actualmente nos encontramos frente a una reacción cisheteropatriarcal, a nivel global, contra los avances de la lucha feminista, LGTBI+, queer, migrante y antirracista. Nuestras resistencias, por otra parte, cada vez tienen más carácter internacionalista. Estos últimos años hemos aprendido mucho colectivamente, sobre nuestras vulnerabilidades y sus potencialidades políticas. En el momento actual de avance de la extrema derecha, con el neoliberalismo agudizando las desigualdades, no deberíamos dividirnos y debilitarnos, sino, como escribió Audre Lorde, reconocer y celebrar nuestras diferencias. Los discursos de odio no son tolerables, vengan de donde vengan. **Retomemos el diálogo, más allá de broncas partidistas en las izquierdas y de batallas por la hegemonía en el feminismo. Por todas y todes: las que fueron, las que estamos, y las que vendrán.**



ARTIKULU OSOA
HEMEN

EUSKAL HERRIA EZ DA TXURIA IZANGO, ALA EZ DA IZANGO

Mundua biraka doa; jendea hara-hona dabil. Hautu propioz eta libreki zenbait; ihesean eta behartuta asko. Herriak aldatu dira, herritarrok aldatu gara. Euskal Herria aldatu da. Migrazio aro berriak, eta jatorri eta kultur aniztasunak gure proiektua eraberritzera eta gaurkotzera garamatzate. Eta horrek proiektua bera zabaltzeko eta aberasteko aukerak irekitzen dizkigu.

Euskal Herria nazio zapaldu bat da, mendebaldean eta Europaren ertz batean kokatua. Kokapen horretatik heldu behar diogu gaurkotzeari. Eta, nola ez, gure buruak ere berrikusiz. Harrera, inklusioa, kulturartekotasuna, elkarrekin bizi eta herria elkarrekin eraikitzea, arrazismoaren aurkako jarrera irmoa... Erronka horiei ezin diegu aterik itxi.



Foku

Jatorri eta kultur aniztasuna euskal egitasmo nazionalaren eraikuntzan

Euskal herritarron jatorriari eta kulturari erreparatuta, inoizko Euskal Herri pluralenean bizi gara. Gaindegiak argitaratutako datuen arabera, 2018an Euskal Herri osoko populazioaren %28,5 Euskal Herritik kanpo jaioa zen, bai Frantziako edo Espainiako estatuetan, bai estatu horietatik kanpo.

Ondorioz, dagoeneko Euskal Herria goitik behera eta ezker-eskuin zeharkatzen duen errealitate sozial, kultural eta politikoa da jatorri eta kultur aniztasuna. Horren aurrean ez ikusiarena egin eta errealitate hori existituko ez balitz bezala jokatu duenik izango da. Baita, mundu zabaleko eskuineko zein ezkerreko hainbat mugimenduk bezala, mehatxu gisa ikusi eta bidezidor erreakzionarioak bilatzeko tentaldia izango duenik ere. Baina bada hirugarren aukera bat: errealitate hori aukera gisa ulertzea eta gure proiektu nazionala aberasteko, zabaltzeko eta irabazle egiteko bide gisa kokatzea.



“Ezker abertzaleak formulatutako ideia politiko garrantzitsuenetariko bat: Euskal Herrian lan egin eta bizi den oro euskal herritarra da”

Euskal Herriko ezkertiar eta abertzaleok hirugarren bidea jorratzearen alde egiten dugu, noski. Hauturik koherenteena izateaz gain, hauturik eraginkorrena ere badelako gure proiektu politikoa gauzatu ahal izateko. Eta, nola ez, gure DNAn txertaturik daramagulako aurreko mendearen erdialdean ezker abertzaleak formulatu zuen ideia politiko garrantzitsuenetariko bat: Euskal Herrian lan egin eta bizi den oro euskal herritarra dela, hain zuzen ere. Altxorra da hori, zaindu eta gure corpus politiko-ideologikoan mimos gorde behar dugun altxorra.

Dena aldatzen da dio kantuek, ordea, eta Euskal Herrira datozen migrazioen ezaugarriak ere aldatu egin dira, orain hamarraldi batzuk bizi izan genuenarekin alderatuta. Egungo migrazioen atzean mundu osoan bizi dugun zibilizazio krisia dago; eta, horren ondorioz, askotariko arrazoiak: klima larrialdia, gerrateak, pobrezia, bizi proiektu berriak garatu nahia, zaintza lanen kate globala... Ondorioz, jatorriz eta kulturaz anitzagoa da egungo migrazioa. Eta horregatik deklinatzen dugu pluralean.

Egungo migrazioek ezaugarri berriak dituzte, beraz. Eta nahitaez erantzun berriak beharko dituzten galdera berriak dakartzate. Alta, XXI. mendeko migrazio berrien fenomeno ez da gaur arte Euskal Herriko testuinguru politikoan kokatu behar adinako dimentsioarekin. Eta, batez ere, ez dugu euskal egitasmo nazionalaren eraikuntzan zein estrategia independentistan izan behar duen

“Jatorriz eta kulturaz pluralagoa da egungo migrazioa”

esanahiaz behar beste hausnartu. Gure ustez, langintza horretan arrakastaz arituko bagara, gakoa da gure ezaugarri propioen araberrako ariketa egitea. Alegia, mendebaldean dagoen eta estaturik ez duen nazio baten begiradatik egitea ariketa. Kontuan izanik, bidenabar, nazio horrek hizkuntza eta kultura gutxiak dituela.

Izan ere, horrek nahitaez beste hainbat herrialdek izango dituzten galdera berdinei erantzun ezberdin eta propioak aurkitu behar dizkiegula esan nahi baitu. Ezin baita kulturartekotasuna modu berean artikulatu Alemanian edo Euskal Herrian. Berezko hizkuntza eta kultura hegemonikoak diren eta estatu batek eskaintzen dituen babes guztiak dituen nazio batean edo berezko hizkuntza eta kultura gutxiagotuak dauden eta estaturik ez daukan nazio batean.

Euskal Herrian kulturartekotasuna euskararen ardaztasunetik ulertu behar da. Euskarak espazio eta posizio berriak irabazteko erronkaren baitan aukera gisa. Euskara hizkuntzen arteko harreman osasuntsuak garatzeko eredu berriak proposatzen eta sortzen eredugarri izan daitekeela sinetsita.

Kulturartekotasuna kudeatzeko ereduarekin asmatzearekin batera, bigarren erronka Euskal Herrira etorri diren eta etorriko diren herritarrek askapen prozesura batzeko bideak aurkitzea da. Gure proiektu nazionalak aurrera egingo badu, ahalik eta euskal herritar gehienentzat partaidetza eta babesa behar ditu. Eta, horretan, etorkin jatorriko

“Euskal Herrian kulturartekotasuna euskararen ardaztasunetik ulertu behar da”

herritarren atxikimenduak balio kualitatiboa du. Atxikimendu hori lortzeko funtsezkoa da gure proiektuan zapalkuntzarik gabeko Euskal Herri askea eraikitzearen eskaintza aurkitzea. Sistema politiko demokratikoago bat eta justizia sozial handiagoa izango dituen herri bat, azken batean.

Hori ez dugu hitz hutsez lortuko, ordea. Dagoeneko hainbat eremutan eta hainbat tokitan egiten ari garen lana biderkatze eta zabaltzeko ordua da. Besteak beste, honako bide hauek landuz:

Baga: igarobide zein helmuga izan, Euskal Herrira datorren edonorentzat harrera herri izanez. Egungo giza mugimenduak behartzen dituzten arrazoiak salatu, errudunak interpelatu eta pasabide seguruak aldarrikatzearekin batera, gure herrira datozen herritarrek behar dituzten baliabide material eta juridikoak gure arduraren parte eginez.

Biga: Euskal Herria elkarrekin bizitzeko eta eraikitze. Etorkinak bizi proiektu bat martxan jartzera datozen herritarrek dira. Horregatik, beharrezkoa da bizitza komunitarioan oraindik egon badauden “isilpeko segregazioak” gaituzte eta elkarrekin bizitzeko bideak lantzea. Horretarako, udalgintzatik baliabide instituzionalak eta gaitasun komunitarioak uztartuz, inor atzean utziko ez duen herria eraikitze lehentasunezkoa izan behar da. Baita herrigintzatik elkarlan espazioak zabaltzea ere. Eta, nola ez, hezkuntzari daukan garrantzia aitortzea. Segregazioaren aurkako neurri

“Zapalkuntzarik gabeko Euskal Herri askea eraikitzearen ezinbestekoak: sistema politiko demokratikoago bat eta justizia sozial handiagoa”

eraginkorrak martxan jartzearekin batera, geroz eta herri eta auzo gehiagotan martxan jartzen ari diren Herri Hezitzaileak eremu interesgarritzat ditugu. Eskolatik harago ere heziketa prozesua elkarrekin garatu ahal izateko.

Higa: jatorriaren, arrazoi kulturalen edota larruazalaren kolorearen ondoriozko diskriminazio edota bazterketa sozialari aurre eginez eta horren kontra borrokatuz. Arrazakeria salatuz, baina, batez ere, arrazakeriarekin amaitzeko oinarri-oinarrian dagoen errealitate estrukturala iraultzeko bidea jarritz.

Horiek denak eta gehiago beharko dira. Eta, horrez gain, gure baitako berrikeria ere ekin behar diogu ezkertiar eta abertzaleok. Izan ere, onartu beharra daukagu ezen, egun, oraindik, patriarkatuak zeharkatzen gaituen heinean, ikuspegi mendebaldarrak ere zeharkatzen gaituela; horrek dakartzan ondorio guztiekin. Horregatik, gure egiteko nagusienetariko bat ikuspegi hori bera berrikusten hastea da. Nekez izango baitugu arrakastarik jatorri eta kultur aniztasuna gure egitasmo nazionalen behar bezala kokatzeko langintzan geure buruak berrikusteko gai ez bagara.



Humberto Chavez, Unsplash

EUSKAL HERRIA MIGRAZIOEN HAZKUNDE AROAN



Julie Rteard, Unsplash



Arkaitz Fullaondo
Soziologoa, UPV/EHUko irakaslea

Migratorako Nazioarteko Erakundearen (MNE) arabera, 2020. urtean, munduan, 281 milioi migratzaile zegoen, populazioaren %3,2a. 1990. urtean migratzaile kopurua 128 milioitakoa zen, hau da, mundu mailan hiru hamarkadetan bere jaioterritik kanpo bizi den populazioa 153 milioitan gora egin du, %120a hain zuzen ere. Migrazioak gizateriaren historiaren oinarri dira eta azken hamarkadetan tendentziak azkartu eta fluxuek gora egin dute. Dinamika honek abiapuntu argi bat dauka, mundu mailan kapitalismoak sortutako desorekak eta horrekin erlazioatutako errealitate desberdinak: pobrezia, desorekak, klima larrialdia, gerrak, lehengaien espolioa, kolonialismoa etab. Desoreka hauen baitan, mundu mailan, migrazio korridore desberdinak sortu dira eta, nahiz eta gure ikuspuntu mendebaldarretik nagusiki hegoalde-iparralde migrazioak kontuan hartzen ditugun (Europara datozenak edo Ipar Amerikara doazenak), korridore hauek askotarikoak dira, adibidez, hegoalde-hegoalde mailan ematen diren migrazioak, Afrikako herrialdeen artekoak, Hego Amerikako herrialdeen artekoak, edo Asian ematen direnak.

Testuinguru honek erakusten digu migrazio hazkunde aro batean bizi garela eta biziko garela epe labur zein luzean. Gure kasuan, Euskal Herria migrazio sistema honen parte izanik tendentziak antzekoak dira. Gaindegiaren datuen arabera 2018an Euskal Herri osoko populazioaren %28,5 Euskal Herritik kanpo jaioa zen, bai frantziar edo espainiar estatuetan, bai estatu hauek kanpo. Datu honek erakusten digu migrazio garai desberdinek zer nolako aniztasun maila sortu duten gure gizartean. Hala ere, gaur egungo migrazio dinamika nagusia Estatutik kanpo datozen migrazio fluxuak dira. Fluxu honen hasiera XXI. mendean kokatzen da eta Espainiar Estatuan garai horretan etxebizitzaren merkatuak sortutako hazkunde ekonomikoan du oinarria. Gaur egun, Hego Euskal Herrian Espainiar Estatutik kanpo jaiotako 429.000 pertsona baino gehiago bizi dira, populazioaren %14,7a, 2000. urtean 50.000 pertsona ziren. Beste alor askorekin gertatzen den bezala, estatuak Euskal Herrian sortzen duten zatiketa eragin nabarmena dauka Iparraldean eta Hegoaldean ematen den migrazio errealitatean. Iparraldeko

migrazio errealitateak frantziar migrazio sistemari eta bertako legeriari erantzuten dio, aldiz, Hegoaldekoak espainiar migrazio sistemari eta legeriari. Zatiketa honen emaitza bi migrazio eta aniztasun errealitate berezituak dira.

Hego Euskal Herriko azken hogeita bost urteetako migrazio dinamika ekonomiaren bilakaerak baldintzatu du. Nahiz eta migrazio tipologia desberdinak egon, gure herrira heldutako fluxuen dinamika gure lan merkatuaren beharren arabera aldatzen joan da.

Bost fase desberdinu ditzakegu, lehena 1999. eta 2008. urteen artekoa da eta migrazio aro berri honen hasiera eta finkapen bezala definitu dezakegu. Espainiar Estatuko boom ekonomikoak erakarritan lehen olatu honetan 180.000 migratzaile inguru heldu ziren Hego Euskal Herrira. Bigarren fasea 2009. eta 2014. urteen artean kokatzen da eta atzeraldi ekonomikoaren garaia da. Bost urte hauetan migrazio-fluxuek behera egin zuten eta urte batzuetan emigrazioa immigrazioa baino handiagoa izan zen arren, estatutik kanpo jaiotakoen kopuruak 50.000 pertsonetan egin zuen gora.

“Gizarteak berak noiz arte kontsideratzen duen pertsona bat etorkin bezala, hori da gakoa. Noiz barneratuko ditugu gure *gutasunean beste horiek?* Gizarteak prozesu hau egitea, *gu-haiek, bertakoak-kanpotarrak* dikotomia gainditzea euskal gizartearen inklusioa eta kohesioaren oinarritzko elementua da”

Hirugarren fasea 2015 eta 2020 urteen artean emandako suspertze- eta berrakibatze aldia izan zen. Hazkunde ekonomikoak migrazio fluxuak suspertu zituen eta bost urte hauetan 80.000 migratzaile gehiago heldu ziren gure herrira. Laugarren fasea pandemia garaia da, 2021 eta 2022 urteak barnebiltzen ditu. Bi urte hauetan, estatutik kanpo jaiotakoen kopuruak 17.000 pertsona egin zuen gora. Bosgarren eta azken fasea pandemia ostekoa da, 2022tik gaur arte Hego Euskal Herrian estatutik kanpo jaiotakoen kopuruak 70.000 biztanle egin du gora.


Migrazio fase hauek hausnarketa bat egiteko parada ematen digute. Noiz arte kontsideratu behar dugu pertsona migratzaile bat etorkin gisa? Noiz uzten dio migratzaile batek etorkin izateari? Galdera honek askotariko erantzunak izan ditzake. Pertsona arrazializatu batek esango digu gure gizartearen dagoen arrazakeria dela eta edo bere azalaren kolorea dela eta, inoiz ez diola etorkin izateari utziko, nahiz eta Euskal Herrian jaioa izan. Migratzaile askok ez dute bere bizitza osoan migratzaile nortasun hori galtzen, migrazioa

beraien bizitzaren elementu garrantzitsuenetariko bat izan delako. Hala ere, migratzaile nortasun hau izatea edo ez izatea ez da garrantzitsuena, gakoa beste bat da. Gizarteak berak noiz arte kontsideratzen duen pertsona bat etorkin bezala, hori da gakoa. Noiz barneratuko ditugu gure gutasunean beste horiek? Gizarteak prozesu hau egitea, *gu-haiek, bertakoak-kanpotarrak* dikotomia gainditzea euskal gizartearen inklusioa eta kohesioaren oinarritzko elementua da.


Agian hausnarketa hau nahiko teorikoa izan daiteke, baina datuek dioskute galdera hauek oso egokiak direla. Gaur egun Hego Euskal Herrian estatutik kanpo jaiotako populazioaren %58a hamabost urte baino gehiago daramatza gure herrian bizitzen eta %30 hogeitabost urte baino gehiago. Pertsona hauek beraien bizitza proiektuaren zati garrantzitsuena Euskal Herrian egin dute, hemen errota dira, familiak osatu dituzte, seme-alabak eskola eta ikastetxeetara eramane dituzte, lan egin dute, parte hartu dute, elkarrekin zein herri mugimenduan militatu dute etab. Ez dira lanera etorri, bizitza proiektu oso bat garatzera etorri ziren orain

dela urte asko, eta jada, Euskal Herriko gutasunaren parte dira, hogeitabost urte hauetan Euskal Herria eraldatu egin delako. Bitartean, migratzaile batzuk euskal herritar bilakatzen doazen bitartean, beste asko gure herrira heltzen dabilta eta harrera politika propioak behar dituzte. Gure herriaren gutasunak kontzeptu eta ezaugarri desberdinek definitzen dute eta horietako bat migrazio garai desberdinek osatu duten aniztasun kulturala dugu. Aniztasun hau errealitate objektibo bat da, baina ez da neutroa. Tentsioak eta gatazkak sortzen ditu eraldaketa suposatzen duelako. Beraz, aniztasuna kudeatu eta landu behar da gizarte inklusibo eta kohesionatu bat lortu nahi badugu, behintzat. Honetarako eredu propio bat behar dugu, gure testuinguru sozial zein nazionala kontuan izango duena, estaturik gabeko nazio bat izanik migrazio, harrera eta aniztasun politika propioak garatzeko oztopo asko ditugulako.


HEGO EUSKAL HERRIKO POPULAZIOAREN GARAPENA



ESPAINIAR ESTATUTIK KANPO JAIQAK



ESPAINIAR ESTATUTIK KANPO JAIQAK HEH SEXUAREN ARABERA





Unarmed Civilian. End white privilege. CC BY-NC-SA 2.0



BP Miller. Unsplash



Tim Pierce. CC BY-2.0

PRIBILEGIOAK ZALANTZAN; HEGEMONIA ZURIAREN MARRA GORRIA



Julu B. El Outmani
Ernaiko kidea

Pribilegioak modu askotan defini daitezke eta era askotara uler ditzakegu. Baina zein da guran duten eragina? Prest gaude pribilegio horiek zalantzan jartzeko?

Hegemonia pribilegio denean, ez du balio. Horregatik, zalantzan jartzeko gai izan behar gara, eta deseraikitze haur politiko egin behar dugu. Horrek lehen lerroak uztera eraman behar gaitu, paternalismoak alde batera uztera eta ahots propioz zenbait gairen inguruan ez hitz egitera.

Autokritikaz ari gara, eta hori norbanakoarengandik hasten da, baina ezin dugu ulertu kolektibotik kanpo. Prozesuak ireki behar dira, prozesuak zauriak ireki behar dituzte eta mina eragin behar digute, zalantzak eta kontraesanak

izan behar ditugu, kritikak egin behar ditugu, eztabaidatu eta erabakiak hartu behar ditugu, eta horretarako guztirako prest egon behar gara, nahi eta behar batetik hasi behar gara.

Lehen lerroak utzi behar ditugu, dekolonialitateaz hitz egin behar dugu, eta ez egin lan paternalistotik, baizik eta deseraikitze eta ahalduz. Askotan edo gehienetan jotzen dugulako paternalismora, egiteko moduak zehatz eta guk formula zehatz bat izango bagenu bezala. Eta ez da horrela, ez dago formula bat eta bakarra. Gainera, horrek ekarpen handia egiten dio gure mugimenduari. Migrazio-legearen aurka borrokatzen direnei entzuteak edota guk gure askapen prozesuan dekolonialitatea edo migrazioa landu behar dugula ulertzeak ere

ekarpen handia egiten digu guri eta gure prozesuari.

Mugimendu bezala prest gaude pribilegioak zalantzan jartzeko? Nola egin nahi dugu hori? Eta zer-nolako militantzia eredu nahi dugu? Eztabaidak ireki behar ditugu, eta mahai gainean jarri arrazakeria, migrazioa, dekolonialitatea eta beste milaka gai. Zalantzan jarri eta deseraiki esaten dugunean, ariketa zintzo bat egin behar dugu mugimenduan. Lanketa hori kolektiboa izan behar da, eta indibiduala, norberak hausnartu behar duelako bere jarreraz.

Pribilegioak zalantzan jartzeko, kontziente izan behar gara guk transmititzen dugunaz eta guk erreproduzitzen dugunaz ere, askotan egin dugulako akats bera: problematikak akaparatu eta lehen lerroan egon behar

garen subjektuak bigarren lerroan gelditu gara, eta guk, arrazializatuok, migratuok, badaukagu zer esan, badaukagu zer esan ahots propioz, gure bizipenetatik, gure ezagutzatik eta guk pairatzen dugun zapalkuntzatik.

GOMENDIOAK



BIDASOA 2018-2023
Fermin Muguruza




EL SALTO
Benito Zambrano, 2024



Ekhiñe Petriati, Elene Lopetegi eta Ainhoa Olaso
Bilgune Feministako kideak

ARAKA DITZAGUN GURE BAZTERRAK

“Dekolonitatea” entzun, eta askori Durangon egin genituen Euskal Herriko Mugimendu Feministaren jardunaldiak etorriko zaizkigu gogora. Euskal Herriko Mugimendu Feminista feminismo hegemoniko zuri gisa interpelatua izan zen kolektibo batzuen aldetatik, eta barne kontraesanak areagotu zitzaizkigun.



Mads Eneqvist. Unsplash

“Emakume migratu eta arrazializatu asko dira Euskal Herriko Mugimendu Feministaren sareen parte”

“Euskal Herriaren burujabetzarantz norabidetzen ari garen trantsizio feministan, antiarrazismoaren bidetik agenda partekatuak sortzen ari gara”

Ahots ezberdinak entzun izan ditugu: esparru batzuetatik feminismo zuria interpelatzen da, minetik eta haserretik, eremu mistoak edo aliantzatarako bideak baztertuta; beste esparru batzuetan feminismo autokritiko antiarrazista sortzeko eskaera dago, subjektu arrazializatuen mintzakidetzak handiagoa eta botere harremanen lanketa eskatuz, emakume euskaldun zuriakiko aliantzak alde batera utzi gabe.

Oro har, emakume euskaldun eta zuri moduan interpelazio horien aurrean kokatzeko hainbat zailtasun izan ditugu. Batzuetan, gai guztiak (migrazioak, arraza, nazio gatazka, euskara, eurozentrismoa...) dekolonialitatearen marko berean sartzeko joera egon da. Zalantzarik gabe, menderakuntza horien arteko loturak existitzen dira, baina baloratu egin behar dugu zein den borrokan arteko lotura eta zein diren horietara heltzeko erabiliko ditugun terminologia eta jarrera. Errealitatea eraldatzeko eta komunitate feminista harilkatzeko orduan, ezinbestean, askotariko zapalkuntzen arteko elkarreragina oinarri izan behar dugu.

Emakume migratu eta arrazializatu asko dira Euskal Herriko Mugimendu Feministaren sareen parte. Horri esker, elkarlanean sortuko ditugu elkar ezagutzeko eta elkar aitortzeko topalekuak, elkarrengandik ikasteko prozesuak, gure arteko bereizkeriak eta aniztasuna kontzienteki lantzeko metodologiak.

Baina elkarren artean nahasten jarraitu behar dugu: burbuila zurietatik atera; elkar ezagutu, aitortu eta baloratu. Feminismoa edo praktika dekolonialak ez ditugu mahai-inguru baten bueltan gauzatuko. Gertuko harremanak, herri mailan abiatutako antolakuntza eta elkarbizitza esperientzia mamitsuak behar ditu.

Horrela, teoria eta praktika lotuz, eguneroko bizimoduan ditugun zapalkuntza egoerak eta horiei aurre egiteko estrategiak josteko bideari ekin diogu. Une honetan, behar-beharrezkoa zaigu mugimendu antiarrazistara, migranteen elkartetara eta dekolonitatea lantzen ari diren kolektiboetara gerturatzea eta haiekiko aliantza estutzea, euskaraz eta Euskal Herriko egoeraz aritzeko, baina baita beste gai askoz mintzatzeko ere. Aldi berean, pribilegio eta

eskubideen lanketa zorroztea dagokigu, eta, horrekin batera, boterearen berrikuspen kritikoa egin behar dugu etengabe.

Euskal Herriaren burujabetzarantz norabidetzen ari garen trantsizio feministan, antiarrazismoaren bidetik agenda partekatuak sortzen ari gara: bizi baldintzen aldeko borrokan, zaintza eskubide kolektiboaren alde estrategia komunak adostuz, euskara erdigunera ekartzeko lanean, migrazio politikak eta mugak salatuz, justizia sistema eta espetxe politikak zalantzan jarriz eta lurraren eta lurraldearen defentsa aldarrikatuz.

Asko dugu egiteko, baina bagabiltza. Praktika utopikoak marratuz eta eraikiz, eremu guztietan jardungo dugu aliantza estrategikoak, intzidentziak eta zubiak egikaritzeko. Sistema kapitalista heteropatriarkal kolonialistatik haragoko Euskal Herri bat imajinatze misio liluragarrian gabiltza.

EUSKARA ETA KULTURARTEKOTASUNA UDALERRI EUSKALDUNETAN. LIZARTZAKO ESPERIENTZIA



Maialen Zuazo eta Maier Ugartemendia
UEMAko euskara teknikariak



FOKU

Euskaraz bizitzen jarraitzeko apustua egiten dugu egitasmo honetan, eta, era berean, herritar guztien komunikazio beharrak bermatzeko saiakera ere egiten da. Zubiak eraiki eta kulturarteko harremanak sustatu nahi dira, eskoletan eta herri mailan denen parte hartzea bultzatuz.

Udalerrri euskaldunetarako diseinatutako egitasmoa da hau. UEMAko hainbat herritan martxan dagoen lanketa hau hobeto ulertzeko ezinbestekoa da mankomunitatearen izaera ulertzea, baita udalerrri euskaldunetan ematen ari den bilakaera ezagutzea ere.

UEMA Hego Euskal Herriko mankomunitate bat da, 111 herri osatzen dutena gaur egun. Euskararen normalizazioan eragitea da gure helburua, baina berezitasun batekin: udalerrri euskaldunen begiradarekin aritzen gara. Izan ere, udalerrri euskaldunetan birsortzen, garatzen eta transmititzen da hizkuntza, modu naturalean, eta horregatik uste dugu hizkuntzarentzat beharrezkoa dela udalerrri euskaldunak eta arnaguneak babestea, indartzea eta zabaltzea.

Hizkuntza ez da aldagai aske bat, herriarekin batera moldatzen eta egokitzen da, eta horregatik gure udalerrietan izan diren aldaketak ulertzeko gako batzuk aipatuko ditugu.

Biztanleriaren igoera nabarmena izan dute udalerrri

euskaldunek azken mendean: ia bikoiztu egin da udalerrri horietako herritarren kopurua. Eta azken urteetan asko hazi da estatu kanpotik etorritako familia eta herritarren kopurua.

Udalerrri euskaldunen irakurketa demografikoa egiten dugunean, kontuan izan behar dugun beste faktore bat jaiotza tasa da: azken hamarkadan, Hego Euskal Herrian 2,4 puntukoa izan da jaiotsiera; eta udalerrri euskaldunetan 3 puntukoa.

Aldagai hori aztertzerakoan gurasoen jatorria ere azter daiteke: datuek erakusten dutenez, udalerrri euskaldunetan jaiotako umeen artean lehen baino gehiago dira guraso bat edo biak atzerrian jaiotakoak dituztenak.

Interesgarria iruditzen zaigu aldagai guzti hauek hiztunen profilean duten eragina aztertzea. Gure herrietan belaunaldiz belaunaldi euskara jaso duten herritarrak ez ezik, eskolan eta kalean hizkuntza jaso duten asko baititugu, gero eta gehiago.

Aldaketa bat dakar horrek hiztunen profilean: gero eta hiztun gehiagok euskara ez dute ama hizkuntza; eta, beraz, errazago moldatzen dira beste hizkuntza batzuetan.

Hego Euskal Herrian, %7,4 dira euskaraz gaztelaniaz baino erosoago aritzen diren herritarrak. Euskararen erabilera eragin nahi badugu

hor dugu erronka, euskal elebidun gehiago sortzea, euskaraz erosoago moldatzen diren herritarrek erabiliko baitute euskara batez ere.

Gizarteratzearen erronka mahai gainean jarri dute aldaketa hauek. Herriko eremu guztiei eragiten diete, baina bereziki eskoletan ari dira aldaketa sumatzen: nola indartu euskararen erabilera eta presentzia hezkuntza komunitateetan, betiere euskaraz ez dakiten familiekiko komunikazioa bermatuz eta kulturarteko harremanak eraikiz.

Erronka horri Zaldibiako hezkuntza komunitateak heldu zion 2021-22 ikasturtean. Mondragon Unibertsitateko Hezkuntza Berrikuntza Zentroaren aholkularitzapean eta UEMArekin elkarlanean lanketa mardula egin zuten.

Zaldibia arnasmunea da, euskara da hizkuntza nagusia, baina erabilera nabari da jaitsiera. Testuinguru honetan, nola bermatu euskara ez dakiten gurasoekiko komunikazioa eta hartu-eman euskararekiko atzerapausorik eman gabe?

Hizkuntzaren kudeaketarekin lotutako kezka eta zalantzak sortu ziren eskolan: bilerak nola egin, oharrak nola zabaldu, guraso elkartearen jarduna nola garatu, gurasoen whatsapp taldeak... Ezinegon horiei soluzio praktikoak ematen saiatu gara egitasmo honekin, baina

horretarako ezinbestekoa izan da aurretik egindako lana eta elkar ulertzea. Konpartitzea zergatik den garrantzitsua arnasmuneetan eta udalerrri euskaldunetan euskaraz bizitzea. Eta ulertzea, aldi berean, jatorri atzerritarra duten gurasoek euren seme-alaben eskolako informazioa jasotzeko eta ulertzeko beharra dutela, gure herrietako hizkuntza aniztasunari erreparatu eta balioa eman behar zaiola...

HUHEZIKO kideek proposamen metodologikoa eraiki zuten: lehendabizi, identifikatu zuten ikastetxe bateko bizitzan zein momentutan hartzen duten parte familiek; bigarrenik, proposatu zuten momentu horietan zein kudeaketa linguistikoa egin ahal zen bi helburuak uztartzeko: euskararen erabilerrari eustea eta euskara ez dakiten komunikazioa eta parte-hartzea erraztea. Komunikazio egoera bakoitzarentzat proposamen bat egin zuten eta proposamen zehatz bakoitzari "formatu" izena eman zioten. Herri edo eskola bakoitzeko talde eragilea arduratzen da proposamen horiek egokitzeaz eta inplementazioa kudeatzeaz.

Zaldibiako testuingurua eta beharrak beste herri batzuetan ere ematen zirela ikusi genuen, eta, egitasmoa estrapolagarria zela ikusita, beste hezkuntza komunitate eta udalerrri batzuetara hedatzen hasi ginen: 2022-2023 ikasturtean Aizarnazabal, Ondarroan,

Leitzan, Ibarra eta Zestoan jarri ziren lanketak martxan.

Ordura arteko esperientzia eta balorazietatik ikasita, hurrengo ikasturtean (2022-2023) beste 14 herritan jarri da martxan egitasmoa: Arbizuko herri eskola, Berako Rikardo Baroja, Lizartzako eskola txikia, Alegiako eskola, Areatzako eskola, Asteasuko eskola, Oñatiko Elkar Hezi, Mutrikuko Samiela, Legorretako eskola, Ereñozuko eskola, Itsasondoko eskola, Orioko eskola eta ikastola, eta baita herri mailako lanketa eta estrategiak garatuko dituen proiektu pilotu berri bat ere (Markina Xemeinen eta Azpeitian).

Eta datorren ikasturteari begira (2024-2025) dagoneko beste 17 zentrotan ari gara lanketa martxan jartzeko lehenengo pausoak ematen.

LIZARTZA

Lizartza, Tolosaldean (Gipuzkoan) kokatuta dagoen herri txiki bat da: 637. Txikia izanagatik ere, azken urteetan bertako biztanleriaren bilakaera handia izan da. Lehen aipatutako aldaketa horiek guztiek eragin nabarmena izan dute Lizartzan ere. Azken 20 urteetan Lizartzan jaiotako haurren %19ak guraso bat edo biak Hego Euskal Herrikan jaioak ditu.

Arnasmune bete-betea da Lizartza: 2021ean egindako kale neurketaren arabera, kalean izandako elkarriketen %83

euskaraz dira. Baina, egun, biztanleen mugimendu handia du eta horrek hizkuntzaren ezagutzan zein erabilera duen eraginak kezka sortzen duen bai udalean eta baita eskola komunitatean ere. Hori dela eta, proiektuak bertan zentzua izan zezakeela ikusita egin zen Lizartzan proiektua martxan jartzeko proposamena, eta esku zabalik jaso zuten hasieratik. Ikasturte osoan zehar martxan izan den talde eragilean parte hartu dute eskolako zuzendaritzako bi kidek, udaleko zinegotziak, guraso elkarteko ordezkari batek, jatorri atzerritarreko bi gurasok eta UEMAKO teknikariak.

Proiektuan proposatutako formatu guztiak jarri dira martxan ikasturte osoan, eta, batez ere, aurrera begirako hausnarketarako bide berriak zabaldu dira taldean. Eskolan egindako lanketari, guraso elkartek emandako pausoak gehitu zaizkio. Baina, horrez gain, hasieratik egin da saiakera proiektuak oinarri duen hausnarketa herrira zabaltzeko, hezkuntza komunitatetik haratago. Oraindik bide luzea dago egiteko, baina komunitatean erantzun nahi zaio egoera berri honi, eta hori bada aurrerapauso bat.

UEMarentzat estrategikoa da lanketa hau. Azken urteetako joerei eta aldaketei erreparatuta, kontziente gara udalerrri euskaldunetan eta arnasmuneetan ez dagoela bermatua euskararen

etorkizuna, horretarako beharrezko neurriak hartzen ez baditugu.

Egitasmoa oso balorazio positiboak jasotzen ari da herri eta eskola guztietan. Lorpenak asko dira; batez ere, oinarri bat finkatzea lortu dugulako orain arte urrun zegoen jendearen artean, eta horri esker ari gara korapilo batzuk askatzen.

Bide horretan komunitate ezberdinen artean zubiak eraikitzen ari dira, harreman eta konplizitate berriak sortzen ari dira, eta, ondorioz herriko zein eskolako bizimoduan parte hartzea ere hazten ari da.

Era berean, ezin da ukatu lanketa honek erronka berriak ere jarri dizkigula mahai gainean. Aipatu ditugun harreman berri horiek egoera ez formalean ematen direnean (eskolako patioan elkartzen garenean adibidez), elkarriketa horietan gaztelania gailentzen ari da. Horri heldu behar diogula uste dugu. Oinarri bat jarri da, urrun zeuden asko euskarara hurbildu direla esan dezakegu, euskararekiko jarrera abegikorra adierazten dutela prozesu hauetan parte hartu duten herritar gehien-gehienek; baina hori ez da nahikoa, eta guraso horiek euskara ikasteko pausoa emateko ahalegina egin behar dugu. Gutxieneko ulermen maila bat bermatzeko behintzat, udalerrri euskaldunetan eta arnasmuneetan euskaraz bizitzen jarraitzeko ezinbestekoa izango baita. Badakigu ez dela apustu

erraza, baina baliabideak egon badaude, metodologia berritzaileak eta inbertsioak egiteko aukerak ere bai. Ez da erraza izango, baina, funtsezkoa dela iritzita, hurrengo pausoak norabide horretan eman behar ditugula uste dugu.

“Irakurketa demografikoa egiten dugunean, kontuan izan behar dugun beste faktore bat jaiotza tasa da: azken hamarkadan, Hego Euskal Herrian 2,4 puntukoa izan da jaitsiera; eta udalerrri euskaldunetan 3 puntukoa”

“Zaldibia arnasmunea da, euskara da hizkuntza nagusia, baina erabilera nabari da jaitsiera. Testuinguru honetan, nola bermatu euskara ez dakiten gurasoekiko komunikazioa eta hartu-eman euskararekiko atzerapausorik eman gabe?”

“Azken 20 urteetan Lizartzan jaiotako haurren %19ak guraso bat edo biak Hego Euskal Herrikan jaioak ditu”

APORIA

Akordioa ala konfrontazioa? Kontsentsua ala desadostasuna?

Euskal Herrian dilema apokaliptikoetara ohitu gara azken aldian. Txuria ala beltza? Akordioa ala konfrontazioa? Euskal Herriaren aurreko ziklo politikoari konfrontazioaren garai bezala izendatu da; aldiz, ETAk armak utzi osteko eta EH Bilduren ibilbide instituzionalaren ondorengo garaia, adostasun eta akordioaren garaitzat hartu da. Era berean, bi garai horietan ezker abertzalearen estrategiak definitzeko kontzeptuak bilakatu dira, trazo lodiz. Zuzena ote dira, ordea, izendapen horiek? Zer dago bakoitzaren atzean? Akordioak gatazka lausotzen al du beti? Konfrontazioak gatazkak politizatzen ditu beti? Nola joan bi horietatik harago?

Nondik askatu korapiloa?

Neoliberalismoak definitu eta mugatzen ditu politikaren barne eta kanpo mugak. Alegia, nork hartzen duen parte eta nork ez, nondik arituko den bakoitza, eta nork izango duen ahotsa eta nola. Azken finean, hainbat autorek definitutako garai post-politikoaren isla da aurrekoa. Zer da post-politika? Mugen barruan aritzen direnen arteko eztabaida zibilizatua, indar erlazioak inoiz aldatzen ez dituen. “Kanpoan” kokatzen dena subalterno bilakatzen da, eta barruan dagoena post-politikaren jokora zokoratzen da. Beraz, deliberazioaren edo kontsentsuaren politikak hotsa dutenen deliberazioa suposatzen dute.

Eskaera subalternoek (zapaldutako ahots desberdinek, ertzean edo kanpoan dauden ahotsak) leku bat irabazi behar dute agora politiko publikoan, eta hori, gatazkaren bidez egin ere.

Zer da gatazka? Akordioak gatazka alboratzen ote du, eta konfrontazioak hauspotu? Akordioaren eta konfrontazioaren mugak hertsiegiak diren bezala, instituzioen eta mobilizazio sozialaren artekoa ere itsua da. Izan ere, konfrontazioan (outsider gisa) eta mobilizazio sozialean ere kokatzen da post-faxismoa, eta, hortaz, “konfrontazioa” eta mobilizazio sozialak ez dira emantzipatzaileak berez.

Irakurri ditzagun ondoko zita hauek hausnarketarekin jarraitzeko.

«*Toda intensificación, toda extensión de las relaciones de poder para hacer que el insubordinado se someta puede sólo resultar en los límites del poder. Este último llega a su término final, tanto en el tipo de acción que reduce al otro a la impotencia total (en cuyo caso la victoria sobre el adversario reemplaza al ejercicio del poder) como en la confrontación con aquellos a quienes gobierna y su transformación en adversarios.*» – Michel Foucault. *El sujeto y el poder.*

«*La política tiene que ver con el conflicto y la democracia consiste en dar la posibilidad a los distintos puntos de vista para que se expresen, disientan. El disenso se puede dar mediante el antagonismo amigo-enemigo, cuando se trata al oponente como enemigo –en el extremo llevaría a una guerra civil– o a través de lo que llamo agonismo: un adversario reconoce la legitimidad del oponente y el conflicto se conduce a través de las instituciones. Es una lucha por la hegemonía.*» – Chantal Mouffe. *Página12* elkarrizketa.

«*La gestión post-política a la que se refería Zizek sigue vigente y responde a una pluralidad creciente con la conocida combinación de politesse –conversación «civilizada» entre los insiders que no altera la relación de fuerzas–, y policía, es decir, el control social de los outsiders, la disidencia no reglada.*» – Mario Zubiaga. *Polarización pilarizada. Naiz.*



Kontraesanetik konplexutasunera. Konfrontazioa, agonismoa eta akordioaren jokoaren teoriak

Filosofia politikoan teoria konplexuak idatzi dira politikaren esparru honetaz. Batetik, politika gatazkaren, disensuaren edo konfrontazioaren espazioa dela argudiatzen dutenak daude. Bigarrenik, postmarxismotik planteatutako agonismoaren aldeko proposamenak, non antagonismo edo aurkakotasun politikoak arerioaren legitimitatea onartzetik datozen,

eta borroka instituzio desberdinen bidez bideratzen den, hegemonia lortzeko. Azkenik, politika modu arrazionalagoan ulertzen duten jokoaren teoriak leudeke. Bi azpimarratzeko, “suma positibo”aren teoriaren arabera kooperazio estrategia bat emanez gero, inplikaturako aktore guztiek irabazi egiten dute, *win-win* estrategia batean. Bestetik, “suma zero” jokoaren teoria legoke, non alde baten irabazpenak bestearen galerak ekilibratzen duen, maila berean. Ze ezaugarri lituzke logika bakoitzak? Ze aukera eta ze arrisku?

Konfrontazioa

- Indar gutxi badago, galtzeko gutxi egonik, eragiteko indar handia.
- Eraginkortasun handia agenda markatzeko. Ekintza desobedienteak.
- Logika politiko bezala olatuak sortzeko gaitasuna, ordea, aparrak kudeatzeko ezintasuna.
- Izan ere, momentu bateko “akordio” batek konfrontazioan eraikitako dinamika oso bat eten dezakete.
- Agrabiotik politizazio zuzena etorriko den uste okerra elikatu dezake [konfrontazioa erromantizatuz], eta agrabio osteko gizartea kudeatzeko zailtasunak izan ditzake.

Adibideak: Sindikatuak greba egitea patronala termino egokiagotan negoziatzera behartzeko. Edo eskuin muturrak gizartean onargarrian ez diren ideiak *fake news*ak edo astakeriak esanez onargarri bihurtzen dituenean [Obertonen leihoa].

Agonismoa

- Tentsio baxuagoko gizarte egoeratan abilezia taktikoz aurrera egiteko logika ahalbidetzen du.
- Hegemoniaranzko posizioak pausuz pausu irabazten joateko aukera irekitzen du. “Urrun goazelako poliki goaz”.
- Kultura politiko pluralagoa irekitzen lagundu dezake gizartean.
- Arriskua dauka beste logikak alboratu eta hegemoniaren borroka post-politikaren mugetan irentsia izan eta hura betikotzeko.

Adibideak: EH Bilduk Madrilen daraman estrategia litzateke, indarra metatu ahala akordio berriak erdiestea Euskal Herrian, Estatuarekin baldintza hobeagotan konfrontatzeko etorkizunean.

Akordioaren aldeko jokoaren teoriak

- Akordioaren logikak indar korrelazio egokia izanda norbere burua indartzea ahalbidetu dezakete.
- Konfrontaziorako esparru berriak irekitzen ditu.
- Politika aktore arrazionalak akordio arrazionalak iritsi daitezkeelako logika post-politikoaren indartu dezake, statu quo-aren mugak indartuz.

Adibideak: Ipar Euskal Herrian akordio batek [Aiete, Baionako adieazpena...] ahalbidetu zuen frantziar estatuarekin konfrontazioa herri gisa egitea [armagabetzea, presoak...].

Estrategia politiko batean norbere proiektua nagusitzeko hautu desberdinak izan daitezke goikoak, indar korrelazioaren eta apustuaren arabera erabakiko direnak. Ezin da estrategia politiko bat, hortaz, konfrontazioaren ala adostasunaren arabera epaitu. Izan ere, konfrontazioak, indarrak ezean, bi aurkakoen arteko etengabeko posizioen estankatze bat ekarri dezake, alegia, nolabaiteko “konfrontazioaren akordio bat”. Aldi berean, akordioak, momentu egokietan, norbere burua indartu eta etorkizuneko konfrontaziotarako baldintza hobeak eraiki ditzake.


Politikaren artean logika horiek konbinatzen asmatzean dago gakoa, momentu politikoaren irakurketa zuzena, momentuan lortu daitekeenaren zein indar korrelazioaren arabera gogoeta gurutzatu egoki bat egitean, alegia. Edo bestela esanda, konfrontaziorako, borroka agonistikorako eta akordiorako momentuak elkar konbinatzen eta dagozkien momentuan aplikatzen asmatzean dago gakoa.

KROAK



04. OSASUNA

ARROL BEREXI



BUA BRO!

AURREKOAN ZERBAIT OSO ZOROA GERTATU ZITZ AidAN.

OSO ZOROA!

HORRELAKO LEKU BATEAN NENGOELA,

ZERBITZARIA GERTURATU ZITZ AidAN. ETA NIK BRO ESATEN DIOT: KAFESNE BAT. ETA BERAK BAT-BATEAN ESKAINTZEN DIT

NAPOLITANA BAT!

JAJAJAJAJA! BENETAN? NAPOLITANA BAT? ZE FUERTEA!


OSO ZOROA! ETA NIK AURPEGIRA BEGIRATU ETA

"EEE HORI **GALTZEA** DA".

ETA BIDALI EGIN NUEN. HERRI XEHEA BRO! HERRI XEHEA!

BERAIEN TRIPEKIN KALETIK IBILTZEN. **HERRI XEHEA!**

EA GOAZEN BURPEES BATZUK EGIN NAHI DITUDALA.



KAIXO, BATIX! ASPALDIKO! ZER MODUZ ZABILTZA? ETIKETAK IRAKURTZEN?

ONDO EGITEN DUZU! ZAINDU EGIN BEHAR DA. NEUK ERE EGITEN DUT. AZUKREA TXARRA DA.



ZER ONDO ZAIINTZEN ARI ZARELA! ASKO POZTEN NAIZ ZUREGATIK! OSASUNA DA GARRANTZITSUENA!

OSO ONDO SEGI ETA BENETAN ANIMO!

ESNERIK EZ,...





BEGANOA DA!

NOLA DEITZEN ZEN TIPOA?





EZ ERORI INDUSTRIAK ESATEN DIZUN HORRETAN!
EZ JAN ULTRA-PROZESATUAK EZ BADUZU...
5 TIP TRIPA
KENTZEKO
ETA EDERRAGO...



PROTEINA DA BIDE BAKARRA



GOMENDIOAK



MESFIDA ZAITEZ

Bea Salaberri Larre
Txalaparta – Eleberria

Mesfida zaitez, hala dio Bea Salaberriren azken argitalpenaren izenburuak. Mesfidantza, diskrezioa, klandestinitatea, bakardadea nagusi diren giroa ekarri du fikziora, eta, horien bidez, Euskal Herriko historian isilpean geratu diren pertsona, ekintza eta pentsamendu ugari egin die leku eleberri honetan. Honenbestez, mesfidantza bai, baina haren gibelean loratzen diren elkertasuna, grina eta ausardia ere ikusarazten ditu idazleak.

Euskal Herriko nazio gatazkaren bi une gako ditu testuingurutzat istorioak. Liburuaren lehen zatia Lizarra-Garaziko akordioaren ostean abiatzen da, eta, milurtekoa igarota, 2000ko hamarkadako lehen urteetako militantzia politikoak, poliziaren sarekadek, Hegoaldeko kideen aterpe bilakatu beharrak, Ipar Euskal Herrian izan zuten eragina azaltzen du. Bigarren parteak, aldiz, Luhusoko armagabetzearen aurreko garaiak islatzen ditu, borroka armatuaren amaierak markatutako erritmo-aldaketa eta gizarteak garai, hizkera eta borrokan egoteko modu berrietara moldatzeko egindako ahalegina. Transformazio horrek utzitako arrastoak eta minak, inertziak eta ilusioak. Memoria lan ederra da, alde horretatik, Salaberri proposatzen duena.



GUDARI ELI GALLASTEGIREN LORRATZA

Nerea Azurmendi
Txalaparta – Saiakera

Bizitza guzía komunikazioari eman dion Nerea Azurmendik [Legazpi, 1961] bildu ditu liburu batean Eli Gallastegiren ekintza eta pentsaerak aurrenekoz euskaraz. Biografia, historia eta kronikaren artean arraunean, eta "Jagi-Jagi", "Aberri" eta "Euzkadi" garaiko bertze zenbait agerrietan eta posta-trukean oinarriturik, 36ko gerraren aurreko giro nahasi eta ez hagitx ezagunean baina guziz erabakigarrian sartzen gaitu "Gudari. Eli Gallastegiren lorratza" saiakera laburrak. Telesforo Monzonek sortutako Olaso Dorrea fundazioarekin batera, Txalaparta argitaletxeak abiatu duen bilduma berri baten hirugarrena da hau. Aurreko bi aleak Iñaki Egaña historialariak ETako kide izandako Eustakio Mendizabal "Txikia"-ri eta Ogro Operazioari eskaini zizkion; «gertu baina aldi berean urruti dagoen garai baten transmisioa egitea dute helburu, batez ere azken hamarkadetan harrapatu gaituen gatazkaren hainbat alderdi partzial nahiz orokor ezagutu ez zituzten belaunaldiei». Gai eta pertsonaia handiak, formatu arinean, askatasun gogoaren arrastoa gal ez dadin, memoria osoa aldarrikatzeko.



HERRIAK DU GEHIEN AGINTZEN

Raquel Varela eta Robson Vilalba
Txalaparta – Komikia

Krabelinen Iraultzaren 50. urteurrenean, Bertrand, Verso, Manifest Llibres eta Txalaparta argitaletxeek aldi berean argitaratu dute komiki hau, portugesez, euskaraz, gaztelaniaz eta katalanez. Gaian aditua den Raquel Varela historialariak idatzi eta Robson Vilalbak ilustratutako lana da, erdi-fikzionatutako gertakizunak herriaren ikuspuntutik ezagutarazten dituen: Afrikako gerra, borroka antifaxista eta antikoloniala, film eta musika konprometitu eta klandestinoak, PREC izenez ezagutzen den aldia...

Ilustrazio zuri-beltzek eta testu narratiboak bat egiten dute Portugaleko historia hurbilaren pasarte esanguratsuenetako bat artez kontatzeko. Komikian bertan esaten den bezala, Krabelinen Iraultza «amets ederra izan zen. Hori ez digu inork kenduko. Azken batean, esperientzia hori geratu zaigu. Hilabete haietan ulertu genuen bazela bizitzeko beste era bat. Beste pentsamolde bat. Beste modu bat egoteko... elkarrekin».




LAS CONDENADAS DEL MAR

Camille Schmoll
Prólogo: Ane Irazabal
Txalaparta – Ensayo

Este estudio, basado en profundas investigaciones en y sobre la frontera sur del área Schengen, tiene como protagonistas a quienes se sitúan en los márgenes del relato migratorio: las mujeres. Camille Schmoll recoge sus historias, les otorga voz, y desafía los prejuicios existentes en torno a ellas.

Presenta un análisis de las experiencias de las mujeres africanas que atraviesan el Mediterráneo y ofrece una mirada analítica y crítica sobre las complejas realidades de la migración femenina en dicho contexto. Para ello, huye de binarismos que representan a la migrante como víctima o heroína y rechaza la dicotomía entre migraciones voluntarias o forzadas, planificadas o improvisadas. En lugar de ello, muestra las diversas vivencias de estas mujeres, con sus luces y sombras, incluso cuando estos relatos puedan resultar incómodos. Invita así a una reflexión más profunda sobre el sistema que perpetúa la vulnerabilidad de las migrantes.



HAN EGON ZEN JOSE LUIS ELKORO, BIZITZA BETE BAT

Mikel Zubimendi
Txalaparta – Biografia

Biografia honek aitortza kutsua du, eta, zehazki Jose Luis Elkoroaren bizitza kontatzen duen arren, Mari Karmen Aiastrui eta beste ahots jaso ditu Mikel Zubimendi kazetariak. Elkoro, abertzalea, enpresaria, balioen eta memoria kondentsatuaren altxor kutxa bat da eta belaunaldi baten sinboloa.

Orain dela bi urte, Bergarako Udalak eta Olaso Dorrea fundazioak Monzon-Ganuzar saria eman zieten Mari Karmen Aiastrui eta Jose Luis Elkoro senar-emazteei, euskararen eta Euskal Herriaren alde egindako lanagatik.

Euskal kausaren aldeko «errekadista» soil bat, halaxe dio Elkorok bere buruaz, une, gertaera eta erabaki esanguratsu ugartan parte hartu duen arren. Eta ez beti afera atseginetan, baina betiere Euskal Herriaren burujabetzaren eta askatasunaren alde, zentzu zabalenean.



ORLANDO MI BIOGRAFÍA POLÍTICA

Paul B. Preciado
Documental

Paul B. Preciado adapta en su ópera prima la novela de 1928 de Virginia Woolf 'Orlando: una biografía' para convertirla en una biografía colectiva que celebra la supervivencia y la lucha por la libertad de las personas trans y no binarias.

Una carta de Paul B. Preciado a Virginia Woolf en la que el filósofo cuenta a la escritora inglesa qué ha ocurrido con Orlando, el personaje trans de su novela, en el último siglo, desplazando los binarismos tradicionales entre el documental y la ficción. Narrada en primera persona por la singular voz de Paul y encarnada por 26 personas trans y no binarias – de entre 8 y 70 años -. Un caleidoscopio de experiencias graves y poéticas entre la historia novelada de Orlando y las vidas reales de los Orlandos de la historia, que exploran la transición de género no solo como una mera producción de identidad, sino como un viaje transformador, un movimiento de desidentificación y una práctica de invención de libertad.

Una carta de amor dedicada a todas aquellas personas trans y no binarias que ponen en riesgo sus vidas a diario al deber hacer frente a las leyes, la unilateralidad de la historia y los dogmas de la psiquiatría.



OLAGARRUA

Antzeziana

Errudunak gara? Errugabeak? Zerk egiten gaitu errudun? Edo nork? Gure errua, gure errua da? Ba al daude erru txiki eta handiak? Erruak askatu nahi ditugu?

Oholtza bat. Hiru emakume. Olagarro bat. Errua desagerrarazteko saiakera bat. Erruarekin jolasean, olagarroaren eta gizakien munduak nahastuz, itsas azpian eta lur gainean biziraun nahian; erruak astintzen, olagarroak haren zortzi erroak astintzen dituen moduan. Obra posible asko obra bakar batean, poetika ezberdinetan mimetizatuta, irri algararen bidez arnasa ekarriko dutenak eta tinta beltza jaurtiko dutenak, bizirauteko. Gorputzetik, plazeretik, fantasiatik. Maitane Perezek, Nerea Arriolak eta Olatz Beobidek dena ematen helburu bakar batekin: herri horretako erruekin amaitzea. Lortuko dute?

GEURETIK SORTUAK bekeri esker eta ZUMAIA herriaren babesean sortu eta ekoiztutako antzeziana.

Datozen emanaldiak:

- Irailak 6: Segura
- Irailak 13: Aiherra
- Irailak 20: Amasa-Villabona



ALTXALILI

Kabareta

Altxalili kolektiboak euskabareta egiten du, oinarri feminista, queer-a eta euskalduna duen ikuskizuna. 2022an sortu zen taldea, eta heteroarautik kanpo dauden Ipar Euskal Herriko barnealdeko hainbat lagunek osatzen dute. Dom Campistron bertako kideak azaldu bezala, artearen bidez euskal LGTBQ+ kultura bultzatzeko helburua dute. Musika, kantua, antzerkia, gorputz adierazpena, marrazkia, umorea... denetarik biltzen du euskabaretak, betiere, heteroaraua eta bertako sinesmenak arrakalatu. Atharratzeko Bekat'uros Egunaren bueltan egin zuten lehenengoz ikuskizuna, 2023ko urtarrilean. Hainbat emanaldi egin dituzte orduetik, gehientsuenak Ipar Euskal Herrian eta barnealdeko herrietan. Heteroarautik kanpoko gorputzak eta identitateak ikusarazteaz gain, Ipar Euskal Herriko haiek saretzen eta espazio segurua sortzen ere ari kolektiboa.

Datozen emanaldiak:

- Abuztuak 31: Arrosa
- Urriak 12: Bergara (Elorregi)
- Azaroa: Lartzabal

